



Karkara

karkara.com

Orioko eta Aiako aldizkaria · 2014ko otsailak 28 · 348. zenbakia, 25. urtea



Algara eta negarrak ahaztuta, isilik dago Moja-etxe

Done Eztebe eraikina -Moja-etxe- ahoz aho dabil azkenaldian. Herri-tarrek gora jasotakoa herritarrei bueltatzea nahi dute Aian.

18

Argazkiak

Oriaren Jaitsiera

21

Elkarrizketa

Hossain Kaanache

23

Erreportajea

Aia-Orioko mugak II

35

Kritika

Hiztunpolisa



PUBLIZITATEA

XS
arkitektura
herrikobarra 6, zarautz

eraikuntza zerbitzuak
errehabilitazioak
obrak
proiektuak
txostenak
ITE-ak
eraikinen mantenua

Borja Agirresarobe Lopetegi
635 731 722

TAILER MEKANIKOA AUTO LAN



Pelotari 5
943 83.00.34

Zure Konfidantzazko
Gertuko Tailerra

LEUNDA OKINGEDIA



ORDUTEGIA

ASTELEHENE TIK - LANBARRTERA 7:00 - 20:30
IGARDE ETA JAI EGURETAN 7:00 - 13:30

ARISTERRAZU
jateketa



Andatza auzoa AIA
Tel. 943 83 45 21

Igo zaitez haize berrietara!

Galerria



943890416 - 677149934
galerria1orio@hotmail.com

Kinkladenda - Ume arropa

argine

www.lasonei.com/argine
Tel. 943 13 48 89

25eko DESKONTUA FAMILIA
UGARIEN TXARTELAREKIN

OREKA FISIOTERAPIA



**TENDINITISAK
LUMBALGIAK
ARTROSIA
ZEPALEAK ...**

MASAJE TERAPEUTIKOA
BENTOSAK, AKUPUNTURA
ESKUZKO TERAPIA
OSTEOPATIA

943 13 35 37

ARITZAGA KALEA, 11 BEHEA

ITZALA

kartetas jokatzeak
aproposak

tel. 943 83 12 59

ITZIAR

kirolak



Tel. 943 83 31 03

MANTEROLA S/L
ESFERA ETA RETENTZIOKO
BALBULAK



Santiago auzoa - 13 postakutza
Tel. 943 830 743
Fax: 943 134 634
E-mail: tmmanterola@tmmanterola.com
20610 CRIO - GIPUZKOA

Esferako balbula
AENOR kalitate ziurtagiriduna

Zarautz
Hileta Zerbitzuak

Harrespil
Hilerni Zerbitzuak

> Hilerrien kudeaketa
> Hileta zerbitzu orokorrak
> Zerbitzu iraunkorra

Araba kalea, 35 · ZARAUTZ · Gipuzkoa · Tel.: 943-89 49 37 · Faxa: 943-89 49 41 · e-posta: zarautz@harrespil.net



348

Karkara

Orioko eta Aiako aldizkaria

Kultur etxea**20810 Orio****943 83 15 27****karkara@karkara.com****Editorea**Karkara taldea
kultur elkarte**Zuzendaria**

Lore Berasaluze

Erredakzio taldeaOnintza Aiestaran,
Olatz Artola,
Miriam Garcia,
Iñaki Iturain
eta Idurre Lizarralde**Publizitatea**

Iban Eiguren

**Ale honetako
boluntarioak**Manu Etxeberria,
Joxemari G. de Txabari,
Eusebio Lasarte,
Luis Lizarralde,
Ainhoa Mateos,
Joxemari Olasagasti,
Joxe Julian Olasagasti,
Jabier Zabaleta,
Nikolas Zendoia**Diseinua**

Saioa Perona

BanatzaileakEsti Uranga eta
Leire Zinkunegi (Orio)
Eli Irureta (Aia)**Inprimategia**Gertu Koop. E. (Oñati)
Lege gordailua SS-346/90
ISSN 1132-1105
Tirada 3.200 aleKARKARAK ez du bere gain har-
tzen aldizkarian adierazitako
esanen edota iritzien erantzukizunik. KARKARAN argitaratutakoa berreman daiteke, osorik edo zatika, baldin eta iturria aipatzen bada.**LAGUNTZAILEAK**

Aiako Udala



Orioko Udala

Eusko Jauriaritza
Kultura Sailak
diruz lagundutako
hedabideaGipuzkoako
Foru Aldundia

HASI BERTSOTAN

EUSEBIO LASARTE (DOINUA: HAIZEA DATOR IPARRALDETIK)

Milari, Joxeri eta Karlosi

Samintasunez une beltzetan
dator bertan kurpila,
agurtu behar bi bihotz haundi
arrazoak daude pila.
Xarmanta zinan Mila maitea
tratuan oso abila,
nortasunean duintasunez
jatorra bezain umila.
Mila ez zaigu inoiz ahaztuko
zinan oparo hurbila,
izar argi bat lore lerdena
zoaz deskantsuan bila.
Ditxa izan da zu maitatzea
denagatik esker mila.

Joxe Torrotxo hilkutxan dago
hau da gaurko eguna
gorealdu nahi dut maitea nuan
gendun herritar kuttuna.
Sormen gera ta heriotza zor
hau da gaurko eguna
Nahi z ta gazterik galdua zuen
berezko zun osasuna
sentimendua zuan ispilu
bihotzez oso leuna
zail egiten zait zu agurtzea
mina ematen diguna
agur ta erdi Joxe maitea
benetako euskalduna.

Heriotzaren kanpai hotsakin
azkeneko alirona
agurtu behar musiko haundi bat
maite genduan gizona
klarinetia ixilik dago
hau da tristura dagona
eskertzen zaizu eman dezuna
izanda asko ta ona
Oriok bere bihotz barruan
beti du Karlos Perona.



Ezkerretik eskuinera, Joxe Torrotxo, Mila Oliden eta Karlos Perona. UTZITAKOAK

Publizitatea kontratatzeko:

Iban Eiguren**688 859 682****karkara@karkara.com****karkara.com**

1936ko gerraren gaineko liburua

Aurten bertan liburu proiektu bat lan-tzen ari gara elkarlanean. Liburuak 1936ko gerrak Orion izan zuen eragina azaldu nahi du, orduko oriotarrek gerran sufritu zituzten ondorioak jaso, haien istorioak. Herritarren istorioen bidez, gerra haren Orioko historia agertu nahi du liburua.

Liburua plazaratzeko bidean, urrats asko eman dira eta ia moldatuta dago. Nolanahi ere, pena litzateke plazaratu eta gero, norbaitek esatea berak baduela gerraren gainean zer kontatua eta ezer ez zekielako ez dela agertu harena liburuan, alegia ez duela aukerarik izan liburuan haren istorioa azaltzeko.

Garaiz gabiltza. Edonork du eskubide eta aukera 1936ko gerran Orion gertatu zenaz bere bertsioa azaltzeko. Gerra hartan hildakoak izan ziren, atzeriratuak, konfiskazioak, zigorrak, zubia bota zuten... Istorio asko. Argazkiak ere badaude ordukoak, Orioko etxeetan asko egongo dira garai hura ondo islatzen dutenak. Horiek denek lekua izan dezakete liburuan.

Aukera hori bideratzeko, jende aurreko azalpen bat egingo dugu martxoaren 6an Orioko kultur etxean, arratsaldeko bostetan hasita –17:00etan–. Bileran, garai hartan gertatutakoak azalduko ditu Iñaki Iturainek, eta orduko argazkiak erakutsi. Saioaren helburua da herriko jende nagusia, gerrako garai hura edo gerraostea ezagutu zutenek, orduko istorioak entzunez, orduko argazkiak ikusiz, daukaten informazioa ematea; nolabait ere, jende-ari liburu egiteko bidean parte hartze-ko aukera ematea, eta horrela, gerra haren historia denen artean osatzea. ■

Iñaki Iturain eta Jon Agirresarobe

Euskara, gizarte kohesioaren hizkuntza

Bona tarda. Arratsalde on.

Bartzelonatik etorri gara, proiektu pozgarri batean gure aletxoaren artean asmoarekin. Ezer baino lehen eskerrak

Gutunerako oharra

Argitaratu nahi diren gutunak KARKARA bidali daitezke posta elektronikoz honako helbidera: karkara@karkara.com edo gure lokalera eskura ekarri (Orioko edo Aiako Kultur Etxean) edo postaz bidali. KARKARAK ez du argitaratuko ize-rik gabe datorren gutunik. Egileak hala nahi badu, ezizenarekin argitaratuko dugu; baina, beti, gurek egile-aren nor den jakinda. Gutunean nor-bait aipatzen baldin bada eta nor-bait horrek gutunaren egilea nor den jakin nahi badu, Karkarak esan egingo dio.

KARKARA bere egiten du eskutizak laburtzeko eskubidea.

eman nahi dizkiogu Orioko Udalar-*ari, Euskaraz bizi-bizi festa aparta honetan parte hartzeko gonbidatu gaituelako. Eta bereziki aipatu nahi ditugu Jon Torrotxo euskara zinegotzia eta Jabier Zabaleta euskara teknikaria.*

Dakizuen bezala, Katalunia trantsizio nazionalerako prozesu batean sartuta dago gaur egun. Katalanok erabaki dugu erabaki egin nahi dugula. Prozesu horren barruan, laster erabakiko da noiz egingo den kontsulta eta zein izango den galdera zehatza. Puntu honetara iristeko, hainbat faktore gertatu dira batera, batzuk egiturazkoak eta beste batzuk, zirkunstantzialak. Seguru ez ginela hona iritsiko katalanok ez bagenu eduki gure gizarte kohesio-*tzeko ahalmena. Eta gizarte kohesio-
natzeko lan horretan funtsezkoa izan da hizkuntza katalana, integrazio-
tresna ezinbestekoa. Gure herri eta plaze-
tan 200dik gora hizkuntza hitz egiten
diren garai honetan, bai gizarte-eragi-
leek eta bai erakundeek garbi ikusi
dute katalana dela hizkuntza aniztasun
hori kohesionatzeko tresna onena.*

Kohesioa lortzeko, milaka hizkuntz bikote *–pelles lingüístiques–* eta mintza-talde eratu ditugu. Katalan-*hiztun askok beren denbora librean es-
kaini dute, borondatez, ikasleei aukera
emateko katalana praktikatzeko kafe*

baten bueltan. Izan ere, katalana —edo euskara— oraindik ondo ez dakien bati egin diezaioket mesederik handiena abiatu duen prozesu horretan laguntzea baita. Eta, laguntzeko, hari euskaraz hitz egitea da onena, pixkana-pixkana, mimikaren laguntzaz eta, beharrezkoa bada, hainbat gauza itzuliz.

Garrantzizkoa da hizkuntza ikasten ari direnei laguntza ematea. Ikastaro, klase eta gramatikaz harago, behar-beharrezkoa dute gure bat izatea hizkuntza praktikatu ahal izateko. Oso zaila egiten zaie gure horiek topatzea, jendeak, gu guztiok, berehala aldatzen dugulako hizkuntza, zailtasunak dituzte la konturatu bezain azkar. Hori dela-eta, Katalunian kanpaina bat jarri genuen martxan Plataforma per la llenguakoe, etorri-berrien elkarteekin batera: Si us plau, parla'm en català – mesedez, egidazu katalanez –, helburu garbi batekin: katalan hiztunek ez aldatzea hizkuntza etorri-berri baten aurrean daudenean.

Zentzu horretan, gutako bakoitza irakasle ona izan daiteke, adibide bikaina. Horretarako, hizkuntzarekiko konpromisoa txertatu behar dugu gure eguneroko jardunean: eskolan, lanean, familiarekin, lagunekin, erosketak egiterakoan... momentu guztietan. Baita gure haurren eskola aukeratzeko ere. Katalunian, murgiltze ereduari esker, katalana da komunikazio hizkuntza eskolatan eta, horrela, gure ikasle guztiek oso maila ona lortzen dute katalanez —eta beste hizkuntza eta arloetan—.

Bukatzeko, dei egin nahi dizuegu euskararekiko konpromisoari eusteko, eta konpromiso hori egunero erakusteko zuen erabaki pertsonalen bitartez. Katalana adibide hartuta, euskara hizkuntza irekia dela erakutsi behar duzue, batzen duen hizkuntza, modernitateari lotua. Eta gaur egungoa bezalako testuinguru globalean modernitate zera da: aniztasunaren aberastasuna onartzea eta gurea baloratzea.

Horregatik, oriotarrek, gure mezua honako hau da: optimismoa eta alaitasuna. Zuen etorkizuna zeuen eskuetan

dago-eta!

Eskerrik asko, moltes gràcies.a. ■

Rosa de les Neus eta Francesc Marco Palau.

Plataforma per la llenguako kideak

Tragoak ez dira bakarrik ateratzen

Hemen daude inauteriak, eta festa elektronikoa polita antolatu dugu bihar etxean. DJak izango ditugu belarriak bete eta hankak astintzeko musika jartzten. Gaztetxea atonduta egongo da eta bertako kideak –eta nahi duena– mozorrotuta egongo gara, guztiak tematika berdinarekin. Besamotz gaude, ordea, askotan bezala, tragoak aterako dituzten eskuekin.

Gustura joaten gara Etxeluzera zerbait dagoenean. Ordu pare bat barran pasatzea ez da lan handia baina izugarritzko laguntza da. Hurrengoan beste batek aterako dizu tragoa eta denok pozik! ■ **Etxeluze**

Okerrak zuzentzen

Aurreko KARKARAN, 347.ean, egin dako akatsak zuzendu egin nahi ditugu; zuzentzeko modukoak direnak, bai, behinik behin: Aiaren eta Orioren arteko mugen gaineko erreportajearen emandako zenbaki batzuk ez ziren zuzenak: Tren-geltokia 1895ekoa da, ez 1985ekoa, eta Torrotxotarren familian zortzi senide ziren. Barkatu okerrak.

Hondakinak bere lekuan

Aste bukaera gure herri polit honetan. Senarra konposta botatzera joan da, eta ezustekoa topatu du edukiontzi marroian –tapa handia irekita zegoen–: xurgagailua; atera du, eta kanpoan utzi. Propina hurrengo egunean: koltxoi eder bat eta tramankulu batzuk. Nork gehiago? Garbigunea erabiltzeko dago, eta doan da. Eta horrelako gauzak jasotzeko, udalak berak bilketa egiten du hilaren lehen astelehenetan.

Nire kontzientzia ez zegoen lasai naraskeria hori salatu gabe. Zuena? ■ **Ana Lasa**



ZORIONAK!

Kultur etxeko sarrera egokituta

Tristea, ulertezina da, eraikin publiko baten sarrerak eskailerak, eta bakarrik eskailerak, izatea XXI. mendean. Urte mordoska dituzten eraikinak ere aspaldian egokitu zituzten kasu asko eta askotan, edonor hartu ahal izateko. Orioko Kultur Etxearen kasuan, ordea, gurpildun aulkian dauden herritarrek eta ume kotxeek, besteak beste, ez dute urteetan barrura sartzeko gonbitik jaso. Eusko Gudari kalera daramaten zortzi eskailerek ixten zieten sarrerako bidea.

Kultur etxe atzeko plazan bada aldapa, bai, baina itxita egoten dena eta areto nagusira zuzen-zuzen daramana. Handik sartzeko, Imanoli esan behar eta horretarako barrura sartu behar!

Aurrerantzean herritar guztientzako sarrera izango du kultur etxeak, sarrera nagusirako aldapa eginda. Irtenbidea gustuko izan ala ez, lana bukatuta –laster behar dute izan– kultur etxeke ateetatik edonork sartu ahal izango du.

JAIOTAKOAK

■ Ez da jaiotzarik egon.

HILDAKOAK

- Antonio Delgado Porrito, Sevillan, urtarrilaren 30ean. 83 urte
- Joxe Agirresarobe Aristi, Orion, otsailaren 4ean. 67 urte.
- Milagros Oliden Esnal, Orion, otsailaren 4ean. 54 urte.
- Carlos Perona Casado, Orion, otsailaren 11n. 92 urte.
- Antonio Uranga Miralles, Orion, otsailaren 11n. 88 urte.

EZKONDUTAKOAK

■ Ez da ezkontzarik egon

Eskela edo urteurreneko gogoangarria Karkaran jarri nahi baduzu, deitu gure telefonora:
943 83 15 27

OTSAILEKO KRONIKA



Danbolin musika eskolako dantzako ikasleak. KARKARA



Gipuzkoako mus txapelketa hartu zuen Oriok otsailean. KARKARA



Kultur etxeko sarrera-irteera egokitze lanetan ari dira. KARKARA

Erritmo bizi biziz

“Balsa, trikiti-doinuak, rock gogorra, musika modernoa eta berezia. Denetariko musika izan dugu otsailean”

Makilari bizarrak atera eta Santa eske errit-mora hasi genuen otsaila. *Zorion etxe hon-tako denoi!* Bestelako erritmo batean, belarriak goxatzeko eta hankak astintzeko aukera behinik behin izan du musikazaleak gurean: lasai eta goxo aritu da Ane Erkizia Euskadi Gaztean, eta tinpanotik hanketaraino jaitsiko zitzaion bati baino gehiago musikaren doinua Danbolin musika eskolako dantza tailerretakoek eskainitako emanaldian. *Altxa, altxa! Ijiji!* Hanketatik gora, eskuetaraino igo zitzaien, aldiz, noten oihartzuna Andoaingo Piano Jaialdian izan diren piano-jotzaile trebeei.

Musika erabat desberdina daukagu Kultur Etxean. Sarrera irisgarritasun beharretara egokitzen ari dira trika-trakatron. *A zer rockontzertuak* eskaini dizkiguten egunero espaloia puskatzeko tresnek! Hoberako izango da-eta, agoanta! Berdin pentsatuko ote dute Ibaiondoko bizilagunek! Bidegorri berriaren erabiltzaileek goxatuko dituzte haien belarriak.

Gogotsuago entzun ditugu seguru otsailaren 15ak utzitako melodiak. Mus, handira, parerik ez, hor dago! plaza inguruan, karta jokoen erritmorra, bizi-bizi, aurkari begi luzeak gezurretan harrapatu aurretik. Egia ezkutatzen abilak izan oraingoan ere oriotarrak! Euskal Herriko txapelketarako txartela lortua dute Orioko ordezkariak. Heletan arituko dira martxoan eletan, hitz eta pitz.

Musika emanaldirik sutsuena arraunlariak plazan emandakoa izan da. Oriaren jaitsiera irabazteagatik jasotako Babayauto banderak haizearen kontra astintzean egindako doinuekin liluratuta zebiltzan asko. Etorriko dira gehiago!

Belarriko mina egiten duen abestiak ere izan ditugu, ordea. LOMCE legeak hizpide izaten jarraitu du otsailean ere.

Txaranga hotsekin hasiko dugu martxoa: *txindata, txindata!* Joaldunek esnatu dute lurra. Hartu trapu zaharrak, soinean jantzi. Lotsa albo batera utzi eta ondo pasa oriotar eta aiarrak!

LORE BERASALUZE



Etorkizunik ikusten al diozu Aiako astearteroko azokari?



“Asko aldatu dira gauzak txikia nintzenetik hona”

Orain lehen ez geneukan aukera bat daukagu, eta guk probetxua ateratzen diogu. Lehenago Oriaraino jaitsi behar izaten genuen edo kooperatiban erosi. Orain, momentuko produktu freskoak erosteko aukera herrian bertan daukagu eta poztekoa da. Azokan material ona dago eta guretzat garrantzitsuen hori da, hortaz, irautea nahi dugu.

Eskaintza hau daukagu, nahi duena etorri dadila eta nahi duena ez, bakoitza librea da. Gu hasi zenetik asteartero etorri gara, eta etortzen jarraituko dugu. Denboraleak ez du lagundu, baina jendea hurbildu da eta hori ona da bizi iraupenerako.

Mariano Arruti

Jubilatua



“Aurrera jarraitzeko gehiago indartu behar du”

Asteroko zita dut azokarena, hasi zenetik etortzen naiz. Sentsazioa daukat indartzen ari dela, izan ere, gero eta jende gehiago bertaratzen da. Agian, hasieran azokaren berri ez zutelako da; eta orain, zabalitzen ari denez, jende gehiago ibiltzen da.

Etorkizunean ez dakit zer gertatuko den. Esperantza daukat aurrera jarraituko duela, inizatiba ona iruditzen zait eta. Horretarako are gehiago indartu behar du, jende gehiagok gerturatu. Ez da erraza, kotxerik ez daukanak zailtasunak dituelako; baina badira anbulatorkia autobusez etorri eta bidaia aprobetxatzen dutenak ere.

Arantzazu Beldarrain

Etkez-etxeko laguntzailea



“Errentagarria zaigu Aiako azokara etortzea”


Hilabete daramagu eta balantzea positiboa da. Lehen egunetik etorri da jendea, eta behin etorri denak errepikatu egin du. Astero-astero etortzen diren bezeroak dauzkagu, huts egiten ez dutenak.

Pentsatzen dut herriak lehen hutsune bat zuela, eta guk premia hori betetzen dugula; izan ere, herriarrek eskertu dute azokajartzea. Eta guri, errentagarria ateratzen zaigunez, pozik gaude oso. Ondo hasi garen arren gure helburua hobetzea da, etorkizunean indar handiagoa izatea. Aiarrak Oriara joaten diren bezala, asteartetan, Oriotarrak hona etortzea gustatuko litzaiyuke.

Jose Angel Matias

Fruta-sailtzailea





Moja-etxea, herritarren izerdiarekin egindako etxea

Lardizabalek opari emandako lurren gainean aiarrek hutsetik eraikia, jantzia eta zaindua, **herritarren erabilera-rako zena**, Elizari dagokio, legez, *Donestebe*; bihotzez, ordea, aiarrei.

TESTUA: JOXEMARI GONZALEZ DE TXABARRI

ARGAZKIAK: KARKARA

Aramendi baserriaren jabeak, Jose Maria Lardizabalek, bere lurren zati bat Aiako erretore On Leandro Urretabizkaiari eman zion 1933ko abenduaren 23an, han Moja-etxe izenez ezagutzen dugun –*Done Estebe* izena dago idatzia etxe-atariko harrian– eraikina altxatzeko. Jose Francisco Isturiz notarioaren aurrean erregistratu zen Moja-etxe 1934ko urtarrilaren 19an, Azpeitiako erregistroan.

1933 eta 1940 artean eraiki zen Moja-etxe, Aiako biztanleen izerdiarekin jaso. Aiarrek jarri zituzten materiala eta esku-lana; dena doanik, musutruk, herriko bizilagun guztiek erabiltzeko tokia izan zezan Aiak.

Elizaren esku

1936ko irailaren 2an zendu zen Leandro Urretabizkaia Ormazabal, Errepublikaren defendatzaile izandakoa. Dena den, haren heriotza ez zen egiaztatu 1937ko martxoaren 15a arte.

On Leandrok anaia bat zeukan, hargina, Joakin Urretabizkaia *Barbas*, eta hari laga zion gerora Moja-etxe eraikiko zen lurzorua oinordetzan. Hala adierazi zuen Leandrok berak 1930eko otsailaren 27an Zumaiako notariotzan sinatutako testamentuan. Burgosko Azken-nahi Egintzen Erregistro Nagusiak eta Iruñeko Lurraldeko Notarioen Elkargoak 1937ko urriaren 2 eta 7an igorritako egiaztagiria jasotzen duen bezala, Leandro Urretabizkaiak ez zuen bestelako testamentu-xedapen bakar bat ere eman.

1937ko urriaren 11n onartu zuen oinordean emandakoa Joakin Urretabizkaiak eta halaxe jasotzen du 1937ko azaroaren 22an Azpeitian erregistratutako agiriak. Anaia hil eta urte eta erdira egin zuen bere Moja-etxe Joakinek. Ez zion eskua artean asko iraun, egun berean Aiako San Esteban elizaren izenean jarri baitzuen eraikina nazional-katolizismo espainiarraren jarraitzaile sutsua zen Hilario Larburu Hubillos apaizak. Urte bete pasatxo zen gerra zibil odoltsua hasia zela.

Bizileku zuen parrokia-etxetik bota egin zuen Joakin Urretabizkaia etorri berria zen Larburu apaizak. Miseria gorrian, batere jabetzarik gabe, geratu zen Urretabizkaia, Aiako erruki etxean bizi eta pobre hil zen arte.

Herri erabilerarako egokia

Eskolaurreko umeak hartu zituen lehendabizikoz Moja-etxek atea ireki zituen. *Hermanas de la Unión Apostólica* kongregazioak zaintzen zuen Done Estebe. Bertan bizi ziren mojak gainera. Lardizabal eskola eraikitzean, 1970 inguruan, erabilpenik gabe geratu zen Moja-etxeko eskola; ondorioz, desagertu egin zen kongregazioa ere.

Jesus Iturrospe apaizak bestelako erabilera eman zion gero Moja-etxeri. Pelikulak ikusteko aukera eskura jarri zuen Iturrospek, igandero herritar guztientzako moduko zine emanaldiak antolatzen baitzituen. Herritarrei begirako



“Anaia hil eta urte eta erdira egin zuen bere gerora Moja-etxe hartuko zuen lur-zorua-Joakinek. Ez zion esku artean asko iraun, egun berean Aiako San Esteban elizaren izenean jarri baitzuen eraikina nazional-katolizismo espainiarraren jarraitzaile sutsua zen Hilario Larburu Hubillos apaizak”

“Ondorengo urteetan sarritan eskatu izan dute Lardizabal eskolako arduradunek Moja-etxe erabiltzeko baimena... Baina apaizaren ezezkoa jaso dute orain arte ordainetan.”

ERREPORTAJEA

apaiza izan zen eta zineaz gain, bestelako hainbat ekimen antolatu zituen herriko gazteentzat. Gaur egungo gaztelekua-
ren antzerakoa zen Moja-etxe orduko gazteentzat; gazte eta
helduentzako aisialdiko eremu aproposa zen hartan. Beste-
ak beste, Aizpea dantza taldearen makina bat entsegu eta
emanaldi hartutakoa da Donestebe eraikina.

Ramon Eriz etorri zen apaiz Iturrosperen atzetik.

Manuel Aizpurua Idiakez San Estebango elizara iritsitako-
an aldatu ziren kontuak erroetik. Moja-etxeri ematen ari zi-
tzaion erabilera bukatutzat eman zuen apaiz berriak eta erai-
kinean zerbait antolatzeko asmotan zebilenak aitzakiak eta
kexak jasotzen zituen ordainetan.

Zahar-etxe

Halako eraikin ederra egonean, batere erabili gabe, ikusita,
zahar-etxe bihurtzeko asmoa agertu zuten hainbat estamen-
tuk. Gipuzkoako Foru Aldundiaren, Udaleko gizarte zerbi-
tzuen eta herritar boluntarioen laguntzaz, oinarrizko beha-
rrakasetzeko egokitu zen eraikina, zaharren egoitza gisa era-
bili ahal izateko. Horrelako lanak hartu eta gero, proiektua
bertan behera geratu zen Manuel Aizpurua Idiakez
proiektuari ezetza eman ziolako.

Kultur ekintzen gordeleku

Ondorengo urteetan sarritan eskatu izan dute Lardizabal es-
kolako arduradunek Moja-etxe erabiltzeko baimena. Kultur
arloko jarduerak egiteko –antzerki eta abarrak– leku apropo-

sa dela iritzita egin izan dute eskaria. Baina apaizaren ezez-
koa jaso dute orain arte ordainetan.

Negua goxatzeko helburuz, Lardizabal eskolako guraso el-
karteko ordezkariak zine-emanaldiak Moja-etxen egiteko
baimena eskatu zioten 2000an apaizari. Nolabaiteko baiez-
koa eman zuen orduan apaizak. Dena den, proiektorea erosi
eta zenbait emanaldi eskainita, denak ere baldintza oso kas-
karretan, umiliazioz, Moja-etxea ixtea erabaki zuen Aizpu-
rua apaizak egun batetik bestera. Gaur egun arte.

ZENBAKIA**74**

urte. Moja-etxe altxa zenetik pasa dira urte mordoxka horiek guz-
tiak. Aiarren bizitzako hainbat eta hainbat pasarte eta istorio gor-
detzen ditu Done Estebek. Herriko haurren bizipozaren testigu,
hutsik, bizirik gabe dago azken urte luzeetan.



Herritarrei itzultzeko garaia

Gaiarekin lotutako organo kompetente guztiek aurrerapauso bat eman dezaten eta Moja-etxe Aiako Unibertsitateko herritarren esku utz dezaten nahi dugu

Herritarren izerdiarekin jaso zen gora Moja-etxe. Urte mordoxka batean herritarren erabilerara bideratutako eraikina izan da. Legez, apezpikutzari badagokio ere moralki herriarena dela uste dugu; denona. Horrenbestez, eskaintza onena egiten duenari saldu ordez, herriari itzuli behar litzaiokeela uste dugu.

Egoera honi azken gertaerak gehitu behar zaizkio gainera: urtero bezala, Lardizabal eskolako organo gorenak Donestebe erabiltzeko baimena eskatu zion Donostiako apezpikutzari. Haien erantzuna ondorengo izan zen: Donestebe erabili nahi baduzue, esaiozue zuen alkateari eraikina erosteko.

Badugu apaiz gazte berri bat herrian baina lehengo bidetik joan dira gauzak. Badakigu berea duela Moja-etxe eta diru premian dabilzala. Baina elizak baditu beste eraikin batzuk saltzeko. Eta gaur egun hutsik daudenak gainera inolako erabilpenik eman gabe; esatera baterako apaiz-etxea, Donjuanenea eta abar.

Ez du balio besteei diru eske aritzea elizan eta beste horiek behar dutenean bizkarra ematea.

Erreportajea emandako datuek herritarren eta gainerakoen hausnarketa bideratzeko balio dezaten espero dut. Horrekin batera, gaiarekin lotutako organo kompetente guztiek aurrerapauso bat eman dezaten eta Moja-etxe Aiako Unibertsitateko herritarren esku utz dezaten nahi dugu.

Eskaerak gogoan izango dituzuelakoan!



**Joxemari
Gonzalez de Txabarri**



PUBLIZITATEA

sinergia FISIOTERAPIA IKERKETA

IBAI ONDO 1, BEHE-OINA WWW.SINERGIA-WEB.COM
TF.: 943 130 577 685 718 595

LESIOAK: BIHURDURAK, TENDINITISAK, ZAINTIRATUAK, KONTRAKTURAK, HANKA HANDITUAK, ARTROSIA, ALTERAZIO POSTURALAK, BIZKAR HEZURREKO ARAZOAK, ARNAS GAIXOTASUNAK MAUR ETA HELDUETAN, LESIO NEUROLOGIKOAK, MAURDUNALDIRAKO TRATAMENDU BEREZIAK, ERDITZE ONDORENGO ERREKUPERAZIOA

TRATAMENDUAK: TERAPIA MANUALA, OSTEOPATIA, RPG, MASAJEAK, DRAINATZE LINFATIKOA, ARNAS FISIOTERAPIA, KINESOTAPIING-A, PILATES, ABDOMINALETAKO GIMNASIA HIPOPRESIBOIA (GAH)

2GURPIL

Baxoalde 2 - 3 • 20510 Orrio (Gipuzkoa)
943 835 980 www.2gurpil.com bigurpil@hotmail.com

bodegasERRASTI, S. L.

Eskualderako banatzailea
Zudugarai, Getariako txakolina
Ilagares, ardo gorri nafarra
Bodegas Gallur: Señorío de Laurgain
Gallur eta Arlandegi,
Arabar Errioxako ardoak

Eusko Gudari, 46 ORRIO • 943 83 03 06 / 83 59 52 • E-posta: bodegserasti@euskalnet.net

arkaitz taberna
orrio

- Ogitartekoak - Pintxoak
- Plater konbinatuak
- Karta
- Terraza ederrarekin
- Siro ezin hobea

abeslari kalea 6 • 943 83 16 57

GARMENDIA
INMOBILIARIA - AHOLKULARITZA - ASEGURUAK

Ibai Ondo, 1
Tel.: 943 834 466 - Fax: 943 132 941

Azkue

Tf: 943 130 438

Azkue

HAIZE BERRI
taberna-jatebasa-kafetegia

Plater konbinatuak,
bekatak,
hamburgesak,
ruziak,
aguneko menua...

eta etxera eramateko zerbitzuak

Bidea: Errioxa, Orrioren 1, 28 00 02 41 21, 2. solairuaren gainean.

IGLESIAS SARRILAGILEAK

24 ORDUKO ZERBITZUA

Javier Iglesias Fernández
637 723 308
iglesiascorrajerostygoia.es
20610 ORRIO

- ATYAK IRUKITZEN DITUZU
- SARRAILA-ZILINDRO ALDAKETAK
- ATYAK EXTREMO MALDURKIN ALDAKETA
- KOMUNITATEBETZAKO ZERBITZUA

KOLON TXIKI
sarrategia jatebasa

Herriko Enparantza, 4
ORRIO
Tel. 943 83 00 44

GABON TABERNA

Pintxoak
Plater konbinatuak
Ogitartekoak

943 83 06 09

Alustiza Autobusak
Alustiza Bidaiak S.L.

Autobus litera eta
16, 19, 25 eta 56 plazakoak.
Bidaiatu eta ezkontzetara edo sagardotegira joateko.

Tel. 943 13 28 93/ 83 08 80. Mugikorra: 656 78 30 01. 656 78 29 99

edonitegia
ANTILLA
jatebasa

Abeslari kalea, 2 - Tel. 943 83 23 09

Birziklatu egin behar dugu



Jabier Zabaleta



rioko udaletzeko balkoian dago jarritakoa datua: %36. Hori da oriotarrek sortzen dituzten hondakinetatik birziklatzen dena gaur egun. Gainerakoa, %64, zaborretara doa.

Ez da oso harro egoteko moduko datua, kontuan hartzen badugu Gipuzkoako toki batzuetan %80tik gora birziklatzen dutela –urrutira gabe, gure auzo-herrian, Usurbilen, %90 birziklatzen dute, atez ateko sistemarekin orain dela bost urte hasi eta gero–.

Gure Euskal Herri dontsu honetan edozein eztabaida politikoki markatzeko dugun joera tristeagatik ez balitz, ez litzateke erraz ulertzekoa: guztiok nahi ditugu birziklatze-tasa murrizak handitu, eta badugu sistema bat, frogatu duena hori lor dezakeela oso epe la-

“Gaia bandera bihurtuta dago aspaldian eta tarte txikia uzten zaio azterketari sosegatuari”

burrean eta aparteko arazorik sortu gabe. –Lezon, esaterako, %28tik %83ra igo zuten birziklatze-tasa, atez ateko sistema ezarri eta hilabete bakarrean. Harrapazank! Eta Antzuolan ere oso denbora laburrean iritsi dira %90 birziklatzera–; baina, hala ere, hemen segitzen dugu kateatuta, garai batean batzuek eta besteek gaia agenda politikoaren erdigunean jartzea erabaki zutelako, horretaz dakiten aditu eta teknikarien eskutan uzteko partez.

Gaia bandera bihurtuta dago aspaldian eta, hori gertatzen denean, tarte txikia uzten zaio azterketa sosegatuari. Nork bere bandera astintzea bihurtzen da helburu, eta kontrarioari ahalik eta kalte gehien eragitea. Edo norbaitek uste du kontu hau Diario Vascoren lehen orrialdeetan etengabe egotea erabaki zutenen kezka hondakinak biltzeko sistema hobetzea dela? Zorritzarenez, ez.



Manu Etxeberria

nork gutxi ukatuko du gaur egun, gure mundu moderno eta aurreratu honetan, zaborrak eta hondakinak modu beldurgarrian ugartzen ari zaizkigula. Aurreko batean berriro ikusi nuen ordenagailuan satelite batetik ozeanoari ateratako argazki bat, non plastikoz osatutako irla erraldoiak ikusten ziren. Ikaragarria, eta beldurgarria. Hori da itsasoan dagoena; eta gure mendietara eta ibaietara botatzen ditugunak? Edota airera botatzen ditugun keak?

Badira urteak arazo honi neurriak eta irtenbideak ematea premiazkoa zela ikusi zutela agintariak. Orain dela ia hogeita hamar urte ikusi genituen gure etxe inguruetan lehenbiziko kontenedoreak: horiak, berdeak, urdinak... Zaborrak birziklatzeko premia beneta-

“Politika bateratu bat egin behar da, sistema bakoitzak dituen abantailak eta emaitza aztertu eta gero”

koa zela jabetuta, batzuk behintzat ez genuen dudarik izan edukiontzi haiek erabili egin behar genituela, zintzo-zintzo; eta baita egin ere.

Bide horretan aurreratzen segitzeko, bi sistema planteatzen dira orain: batetik, atez ateko sistema; bestetik, bosgarren edukiontzia.

Garbi daukat, era batera ala bestera, zerbait egin beharra dagoela. Baina iruditzen zait politika bateratu bat egin behar dela, sistema bakoitzak dituen abantailak eta emaitzak ondo aztertu eta gero.

Azterketek diotela atez atekoa egokiagoa eta bideragarriago dela eta gehiago birziklatzen dela? Bada, aurrera atez atekoarekin; baina, esate baterako, ez diezadela esan niri astelehenean edo ostegunean arraina edo patatak jan behar ditudanik, mesedez! Jarri gazteak lanean, maizago egiteko bilketa horiek! Haiek ere lanbide hori gustura asko hartuko lukete-eta!



Olatz Artola

Arralde eta Orio, Goenkale eta Karkara

Arralde. Harri-aldea, Xuai baserritik Oribazarrera bitarteko ibaiertza. Fikzioan bada ere, kostako herria da Arralde; arrantzaleen geltoki. Orio ere, arrantzaleen herri; eta arraunaren kabi. Oriako jaitsieran geratu da argi, herriaren kolorea dela hori.

Ibaian behera txalupak, arraunkadaz arraunkada. Aiatik Oriora eta Oriotik Aiara herri-tarrak: hara eta hona. Taberna zuloan hau eta bestea. Arralden, Boga; Orion, Loretxu taberna. Kanean *aupa, apa eta epa*. Arralderen antzera guztiak ezagun, guztiak familia. Guztion artean zuhaitz genealogiko bat osatzeko gai izateraino? Ni baietzaren alde.

Apustua KARKARAK egin duena. Hogeita bost urte bete berri dituen honetan multimediararen alde egin du. Mende laurdena darama istorioak kontatzen, historia idazten. Goenkale baino zaharragoa da, pentsa.

Arralde eta Orio, biak dira arraunaren kabi. Goenkale eta KARKARA, ordea, bertako historioen biltoki. Telesailaren antzera, berrikuntzekin datorkizue KARKARA

Goenkale ere eraberritu da. KARKARAN nahiz Goenkalen hartutako erabakiak ildo beretik doaz. Telesailean familia berriak sartu dira; KARKARAN, lan talde berria. Maiztasuna aldatu da Goenkalen, baita iraupena ere. Saioak, mamitsuagoak dira. Urte berriarekin postontzian hilean behin aurkituko duzuen KARKARA ere mamitsuagoa da. Landuagoa.

Hori bai, izan astean behin, egunero, ordu betez ala ordu erdiz, beti, *prime-timean*.

Goenkaleren grabazioen lekukoa Oriok Tolosari pasa dio. Tolosak, ordaintan, Kilometroaken lekukoa Oriori. KARKARA, aldiz, Eusko Gudarien kanean da. Interneteko atari berrira

salto egiteko gogoz beterik, kazetaritza *prime-timean* egon nahi bada ez baitago beste biderik. Eta noski, ateak zabalik, zuekin egin nahi baitugu arraunean internetaren olatuan. Zuekin eta zuentzat egin nahi dugu KARKARA, beraz, atea jo eta sartu lasai barrura, zuen etxean zaudete eta.

ANORGA TXIBI S.L
KRISTALDEGIA

- komertzial instalazioak - beira bikoitza
- segurtasun beirak - dutxa-itxiturak eta irristailuak
- ispiluak - barandak - kristal mota guztiak...

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA 943 37 17 33- 610 45 93 45

Ile apaindegia
MARIJO

Neska eta mutilentzat

Eusko Gudari, 8-bajo
Tel. 943 13 47 29
Orio



Ainhoa Mateos

Gutxitu, berriz erabili, birziklatu

Urtetako zabortegiak bere atek itxiko ditu betiko eta 2015ean Gipuzkoako beste bi zabortegik: Azpeitiko Lapatxeak eta Beasaingoak. Birziklatzea eta konpostatzea izango dira Gipuzkoako hondakin kudeaketa berriaren ardatzak, eta horretarako noski, etxeetatik hasi beharra dago

abortegi eta errauste plantarik gabeko hondakinen kudeaketa martxan jarri nahi du Gipuzkoako Foru Aldundiak. Orion ere hondakinen mahaia landu eta alderdi guztiek aho batez onartutako dokumentuak 2015 hasierarako birziklatze-tasa %65ekoa izatea erdietsi nahi du. Baina lortuko al dugu?

Badira hiru hilabete udaletxeko balkoian gure birziklatze-tasa zenbatekoa den adierazten zaigunetik. Eta egia esan, puntu bat gora puntu bat behera, bere horretan mantentzen da. Zer egin behar dugu jendea kontzientziatzeko?

Tristea da, baina Orioko etxe askotan oraindik ez da ezer-txo ere birziklatzen; ezer ez. Zabor guztia edozein koloretako poltsa berean sartu eta barneko deaburtxoak esandakoari jaramonik ez diete egiten horiek. Eta bitartean, gu, ingurumenak arduratzen gaituen horiek, udaletxeko balkoira begiratu eta madarikatzen, 36 zenbakiak gora noiz egingo duen desiratuz.

Inguruko herrietan izugarritzko saltsan ibili dira zaborra biltzeko atez ateko eta gaikako sistemen inguruan. Balkoiak zaborrez apaindu dituzte, sinadura-bilketak burutu dituzte, kontzentrazioak egon dira... Oriora ez da horrelako ezer iritsi, eta badirudi oso urruneko kontua iruditzen zaigula.

Baina, ez da horrela. 2014 amaieran Urtetako zabortegiak bere atek itxiko ditu betiko eta 2015ean Gipuzkoako beste bi zabortegik: Azpeitiko Lapatxeak eta Beasaingoak. Birziklatzea eta konpostatzea izango dira Gipuzkoako hondakin kudeaketa berriaren ardatzak, eta horretarako noski, etxeetatik hasi beharra dago. %36ko birziklatze-tasa %65era iristeko asko –ikaragarri– falta zaigu eta denbora aurrera doa, azkar. Bestela nork daki, agian hona ere iritsiko da atez ateko sistema, eta orduan alferrikakoa izango da bosgtarren –edo bi-hondakinen– edukiontzia aldeko kanpaina edo politika egitea.

Hala ere, hondakinen gaiarekin politika egiteak haserretzen nau ni gehien. Batzuk atez atekoa defendatzen dute, besteek gaikako sistema. Baina momentuz, atez atekoa duten herriek dute birziklatze-tasa altuena. Guk ere lortuko ote dugu horien parera iristea? Non da hain handi egiten gaituen oriotartasun hori?

Ni ere gehiago konbentzitzen nau gaikako sistemak, baina udalak botatako *enbidoari* jaramonik ez badiogu egiten, beren eskuetan egongo da *hordagoa*.

Garaiz zaude, irakurle. Erronka ederra dugu parez pare. Har ezazu birziklatzea jolas moduan eta ekiozu abentura ederrari, naturak eskertuko dizu eta. Eta etxean ontziren bat falta baduzu, lasai, herriko burdindegian gustura salduko dizkizute-eta.

Bitartean, plazatik pasatzen naizen aldiro, udaletxeko balkoira begiratzen jarraituko dut, zenbaki hori gora eta gora nola doan ikusteko irrikatzen bainago.

“Orioko Curriculumeko edukiak zedarritzen gabiltza aurtengoan”

Iñigo Gaiton eta Ainhoa Zumeta

Orioko Curriculumak Sortzen elkarteko kideak

Lehen hazia alderdi politikoaren, ikastetxeetako ordezkarien eta norbanakoen atxikimendua izan zen. Ekimenaren enborrari heldu zioten ostean, datu-bilketa faseari. Loratzeko, herritarren parte hartzea eskatu dute

OLATZ ARTOLA

Kultur ondarearen transmisioa berez ematen zen lehen, familiarian. Azken urteetako gizarte aldaketan ondorioz, transmisio natural hori eten eta ardura ikastetxeen esku gelditu da hein batean. Historia anekdotikoa ez izatea du helburu *Orioko Curriculumak* ekimenak.

Garrantzitsua al da gertuko ondarearen transmisioa?

Gertuko ondarea, norberaren identitatea ezagutzen hasteko eta proiektatzeko baliabide paregabea da ikasleentzat. Oteizak zioen bezala, arraunlarien tankeran, atzera begira egin behar da aurrera, nortasuna garatzeko iraganari so egin behar zaio. Nolako Orio nahi dugun erabakitzeke, lehen nolakoa izan zen ezagutu beharra dago eta hori bermatu nahi dugu ikastetxeetan.

Horregatik jo al zenuten ikastetxeetako atea?

Pertsona kritikoak sortzeko tresna da hezkuntza; horretarako testuingurua ezagutu eta ulertu behar dute umeek. Hor-taz, garrantzitsua da gaztetatik kultur ondarea ezagutzea. Herriko edukiak lehenago ere landu izan dira Orioko ikastetxeetan baina guzti hori modu osatuago eta formalago batean egiteko beharra antzeman genuen.

Horregatik ikastetxeetan transmisio hori emateko aukera izan dezaten ziurtatu nahi dugu eta hala izan dadin, materiala bilduta utziko dugu.

Curriculumean bilduko duzue material hori, ezta?

Orioko curriculum partikularra ari gara sortzen, lau adar dituen: euskara, giza zientziak, musika eta natur eta osasun

zientziak. Gai horien inguruan 16 urte bitarteko ikasleek jakin behar luketena biltzen dihardugu. Eskoletan duten ohiko trataeraz gain, gure ikuspegi berritzaile edo kritikoa sartzan ahalegintzen ari gara, hezkidetza edo ingurumenaren trataeran kasu, egiteko ugari baitago oraindik..

Arlo horiek garatzeko Orioko adituengana jo duzue.

Erronka handia da prozesu guztia oriotarrok oriotarrantzat egitea, baina zorionez Orio herri bizia izan da, alor ezberdinetan herritarrak asko mugitu dira aspalditik. Aberastasun handia dugu jakintza askotan. Horri zukua atera nahian gabiltza, Orion mila altxor ditugula erakusteko ahaleginean.

Osatuta noiz egongo da?

Ekainerako amaituko dugu behin behineko bertsioa. Datoren ikasturtean, prozesu parte-hartzaile baten bidez herritarrek txosten hori onartzen duten edo ez erabakiko da. Prozesu parte-hartzaileak sortzeak, jendearen inplikazio handia eskatzen du, eta horretarako, herritarren interesa piztea ez da nahikoa, eragin egin beharko da.

Herriarentzat herritarrekin egin nahi duzue, hortaz.

Proiektuaren berezitasuna hori da, baina baita zailena ere; jende askoren ahalegin eta esfortzua eskatzen baitu. Aurten txostena osatzeaz gain proiektua sozializatzeko saiakeran jarraitzen dugu: sare sozialetan interakzioa bilatuta, KARKARAN bloga ireki eta ahalik eta gehien elikatuz... Gainera, aurrerantzean, gehiagotan egingo dugu salto plazara, ekaina bitartean egutegia ekintzaz bete baitugu.



Orioko Curriculuma Sortzen elkartearen ustez nortasuna osatzerakoan ezinbestekoa da zer izan garen jakitea. KARKARA

“Oriko herri bizia izan da, alor askotan aberastasun handikoa. Horri zukua atera nahian gabiltza”

Zer da, zehazki, antolatutakoa?

Parekidetasuna hizpide hartuta, mahainguru-gosaria antolatu dugu gaztetxeko eta Esperientzia eskolako herritarrekin. Bestalde, eskola-kirolaren gaiarekin ere antolatu nahi dugu zerbait. Lehengo ikasturteko autopista azpiko margoketa errepikatzekotan ere bagara; oraingoan, ikastetxeetatik bideratuta. Ekaina erdialdean kontzertua egin nahi dugu Orioko abestiekin eta txostenaren aurkezpen ekitaldia ere izango dugu.

Orain arteko bidean ze zailtasun izan dituzue?

Proiektua aitzindaria denez ez dago non begiratu, eta erreferentzia falta ari gara sentitzen erabaki batzuk hartzean. Galdera ikurrak azaltzen dira, tarteka nahi baino gehiago, baina horrek ere badu bere xarma.

Eta alde onak? Erraztasunak?

Gai askotan, bilketa lana erraza da, aurretik jende askok lan mordoa egin baitu. Bestalde, udalak aho batez onartu zuen proiektuari sostengua ematea, eta horrek ardura eta konpromisoa sortu du gudan. Aldi berean, pizgarria ere bada konfiantza hori dugula sentitzea.

Balantzea, hortaz, positiboa?

Gustura eta gogotsu ari gara, seriotasunez. Lan-dinamika oso eraginkorra da, eta taldekideon artean edozein gairi heltzeko konfiantza handia hartu dugu denbora gutxian. Gora-beherak izan arren, ilusio handia daukagu. Emaitzari erreparatu gabe, saiakerak bera oso aberasgarria da.

ARGAZKI ERREPORTAJEA



Orioko seniorrak azken paladak ematen. LIZARRALDE



Orioko neskek Nadeth patrioiaren oihuen erritmora. OLASAGASTI



Orio arraun elkarteko neskek estopada bukatu berritan. LIZARRALDE



Sasoian. OLASAGASTI



Neska-mutil. LIZARRALDE



Arraunetxe aurea ontziz beteta. OLASAGASTI



Babyauto bandera irabazi zuten Orioko mutilek

Babyauto III: bandera eraman zuten Orio "A" traineruko mutilek, 19:30:11ko denborarekin marka hautsiz. "B" ontzikoak 19. postuan iritsi ziren helmugara, 20:58:14ko denbora eginez 6000 metroko jai-tsieran. Neskek berriz, 14:48:55eko denboran bete zuten 4000 metroko ibilbidea, hirugarren postua lortuz.



Irakoitz Etxeberria. JOXEJU OLASAGASTI



Oria ibaia traineruz beteeta. OLASAGASTI

Oriaren XV. Jaitsiera

Inoizko ediziorik jendetsuena izan da aurtengo Oriaren Jaitsiera, XV.ena. Otsailaren 15ean, 1.000 arraunlari baino gehiago aritu ziren erriogan gora eta behera arraunean. Neska-mutil asko, ur gaineko palari begira, zeinek azaburu handiagoa atera, ontziak aurrera egiteko. Irudi zoragarriak utzi zituen estropadak eta horietako asko jaso zituzten KARKARARENTZAT Joxe-mari eta Joxejulian Olasagasti anaiek eta Luis Lizarralde *Bixkik*.



Arraunak gora bandera ospatzeko. JOXEJU OLASAGASTI



Traineruak binaka uretaratzen. OLASAGASTI



"B" traineruko mutilak estropadarako prestatzen. JOXEJU OLASAGASTI

ARGAZKI MUNDIALA

Ura harriaren kontra, itsasoa garaile

Bata bestearen atzetik datoz denboraleak negu honetan. Itsasoa hase-rre, haizea zakar eta euri zaparrada mardulak tarteka-marteka. Igogailuko gai izaten dena, egunero da hizketagai azkenaldian. Izan ere, aspaldiko urteetako txikiziorik handienak eragin ditu itsasoak gizakiak jarritako mugak gaindituta.

Antilla hondartzako sorosleen eta Orioko Surf Elkarteko kideen txokoak puskatuta, Txalupa taberna nahas-mahas eginda eta bi barretan kalteak: kanpokoari kosk egin dio itsasoak eta barruko eskoilerako zati handi bat irentsi egin du. Barra muturreko faroa ere bera bota dute olatuek.

KARKARA

Txoko honetan erakusteko moduko argazki zaharren bat baldin badaukazu, ekarri KARKARARA eta gustu handiz argitaratuko dugu, zuk ekarritakoa dela jarrita.

Carmen eta Txomin
ARRANDECIAK

943 83 05 37 / 943 83 27 47

Santi Barranco aseguru agentea

Arizaga 2, 2. ezkerre ORIO

Tf: 618 581 398 - 659 218 221

e-posta: sbarranco@segurosbilbao.com

SEGUROS BILBAO

Grupo CATALANA OCCIDENTE

“Hutsune bat dago kirola ikuskizun moduan ustiatzean”

Hossain Kaanache

Irakaslea eta korrikalaria

Martxoaren 8an hirugarren kirol erronka hartuko du Oriok. Aurten, Kilometroak jaiaren programaren barruan sartuko da kirol ikuskizuna. Kaanache da probaren antolatzailea.

MIRIAM GARCIA

Zer da kirol erronka?

Beti kirol munduan sartuta egon naiz eta hutsune bat ikusten dut: ez zaio ikuskizun gisa etekinik ateratzen. Kirol ikuskizun bat antolatzean munduko korrikalari onena ekar daiteke adibidez, baina oso garestia da eta agian askok ez dute ezagutuko. Herriko eta inguruko kirolariek parte hartuz gero, berriz, ikusmira pizten da. Denek dakite Kaanachek korrika egiten duela, baina ez dute lasterketetan ikusten. Kirol erronkaren helburua hori da, barruan duen ikuskizuna herriari bertatik bertara eskaintzea.

Zertan datza erronka?

Tolosa, Usurbil, Orío eta Zarautzek parte hartuko dute; Kilometroak festaren aurreko urteko antolatzaileak, aurtengoak eta hurrengo urtekoak; eta Zarautz gertutasunagatik. Herri bakoitzeko launa kirolari egongo dira, modalitate bakoitzeko bat: igeri, ergometroan, bizikletan eta korrika. Gehienak goi mailako kirolariak izango dira, adibidez, Abraham Olano txirrindulariak eta Mainer Gaztañaga igerilariak hartuko dute parte.

Aurten kilometroak jaialdiarekin lotu duzu.

Bai, kirol-erronkari publizitate pixka bat egiteko, eta batez ere Kilometroakeko erronkaren filosofiarekin bat datorrelako, biak uztartu ditugu. Gaztetxo asko inguratzea nahi genuke, erronkaren filosofia aisialdia kirolarekin lotzea baita.



Kaanachek antolatzen duen hirugarren kirol erronka da hau. KARKARA

Horrela, kirola gazte jendeari gerturatzea dugu helburu, azken finean etorkizuna beraiengan dago. Neuk kirola egiteak ez du aparteko garrantzia, baina nire eraginak beste kirolariak sortu baditzaiteke primeran.

“Herri osoari dago eskainita, baina batez ere, hezkuntzaren munduari lotua dagoelako, gaztetxoei zuzentzen diegu kirol erronka”

“Aurreko bi erronketan ni bakarrik egon naiz antolatzen eta aurten jende asko aritu gara lanean. Ni taldeko beste zati bat izan naiz.”

Laguntza gehiago izan al duzu antolakuntzan?

Bai, aurreko bi erronketan ni bakarrik egon naiz antolatzen eta aurten jende asko aritu gara lanean. Ni talde bateko beste zati bat izan naiz, besterik gabe.

Ze giro espero duzue erronka egunean?

Orain arteko kirol erronkek arrakasta izan dute. Oihartzuna eduki dute, herriko jendeak parte hartu duelako, eta batez ere lehenengoan jende ugari bildu zen. Gainera kirolariek izen bat badute, Euskal Herrian ezagunak diren herriko jendea da eta horrek balio erantsia ematen dio. Giro polita sortuko dela uste dut.

UDALAREN TXOKOA**OSPAKIZUNA**

Ahizpari jarraitzeko bidean

Futbolearen bere tokia ari da egiten pixkanaka emakumezkoa. Gero eta sarriago ikusten dira emakumezkoak goi mailako futbol taldeetan dena ematen. Bide horretan, badira Errealarekin eta Euskal Selektzioarekin aritu diren herritarrak. Leire Manterola da orain artean azkena, ahizpa Ainararen pausoei jarraituz, Errealarekin aritu baita oriotarra duela gutxi.

HANDIK ETA HEMENDIK

“

“Kantari etxe batetik nator, hortaz, batez ere etxean ikasi dut. Klaseetan gehiago zehaztu dut eta gitarra jotzen ere ikasi dut”

Ane Erkizia Talentu gaztea. -Euskadi Gaztea, Akaboa Bakea-, 2014ko otsailaren 13a.

“Argentinako Euskal Etxe guztitako euskaldunak bildu gara. Urte guztia igarotzen dute egun honen zain eta berehala pasatzen da. Agurra gogorra izaten da eta atzera kontatzen hasten dira berriz”

Asier Gozategi, Gozategi musika taldeko kidea -Elkar Argitaletxea-, 2013ko urriaren 21a..

60 eurotik hasita
www.fotoramiro.com



943 83 10 48
610 697 668

ITSASADARRA, S. L.

Jose Angel Iradi Udabe



aseguru artekaria
finka administratzailea
gestoria
enpresa berriak sortzeko diru laguntzen kudeaketa

Tel 943 89 40 29 Fax 943 83 54 56 itsasadarra@itsasadarra.com
Ibai Ondo 4. behea, 20810 Orio

Joana Murgiondo

Aseguru-agenfea

ASEGURUAK

Murgiondo

C C I
CARBARI, CIVIETI, LACORT E CIA. S.A.

Abeslari, 4- 2. esk.
Tfnoa: 943 13 46 07

Faroeko bakailaoa
daukagu

ITSAS
MENDI

gutuziak

Euzko Gudari, 5 Tel: 943 24 87 74 Orio

ZABALIKI
PROBATU
EZAZU!

PIZZERIA


KALETA

ARRANTZALE KALEA, 10
TELEFONOA: 943 24 89 46

ardoak, urdaikiak, gaztak,
kontserbak, janari prestatuak

etxeraino
eramaten ditugu

943 83 09 84 aita lertxundi, 36
ORIO



1950 inguruan, Aiatik desanexionatu eta Oriora pasatzekotan egon zen lur-eremua: Santiyotik itsasoraino. ORIOKO UDALEKO ARTXIBOIA

Aia-Orio, auzo herrien mugak eta auziak (eta II)

1948an hasi eta 1952 bitartean, errio ondoko lur eremu bat **Aiatik desanexionatu** eta Oriora pasatzeko zorian egon zen. Altixerrierreka, Santioerreka, Oribarzar eta Orioko gaineko 24 baserri hartzen zituen esparruak



Oriu errioa, Oriu eta Aia. Errioa, bi herriak bereizten ala batzen?

TESTUA: LITURAIN
ARGAZKIAK: ARTXIBOA

Desanexioa gauzatzeko, hamaika bilera eta joan-etorri egin zituzten baserri haietako etxe-jabeek. Prozesu politiko bat abiatu zuten, eta botoa ematera ere iritsi ziren. Espainiako Gobernu bera ere inplikatu zen gaietan: Madrileko Ministroen Kontseiluak baimena eman zuen lur eremua Aiatik desanexionatzeko. Orioko Udalak onartu egin zuen gune hura Oriorako hartzea. Mugarri berriak jarri ere egin zituzten. Baina, gero, prozesua gelditu egin zen, beste bide bat hartu zuen. Zer gertatu zen bost urte haietan?

Orioko Udalaren erabakiak

Orioko Udalak gaia sakon landu zuen. Hainbat udalbatzar egin zituen gai honen bueltan. Batzar haien aktetatik hartuta daude ondoko hitzak –erdaraz, jatorrizkoan bezala, eta laburtuta–:

1951ko urtarrileko udalbatzarraren akta

Anexión Alcherri-Erreca. La Corporación quedó enterada, a través del Gobierno Civil, con gran complacencia, del acuerdo adoptado en Consejo de Ministros celebrado el día 10 de noviembre, en virtud del cual se segrega de Aya el Barrio de Alcherri-Erreca, compuesto por veinticuatro caseríos, y se anexiona a este municipio de Oriu.

Tras breve deliberación se acordó por unanimidad que el tres de febrero a las diez de su mañana se proceda al comienzo del deslinde y amojonamiento del territorio a segregar, conforme a los planos topográficos que se acompañan a dicho expediente, facultando al señor alcalde para que designe la Comisión de este Ayuntamiento que ha de asistir a tales operaciones, requiriendo también la presencia de un perito; un representante del Gobierno Civil y una pareja de la Guardia Civil, y que se oficie con la antelación debida a los alcaldes de los Ayuntamientos de Aya y de Zarauz, para que sus respectivos comisionados asistan a las operaciones de deslinde y amojonamiento como partes interesadas.

1951ko otsailaren 24ko udalbatzarraren akta

Deslinde y Amojonamiento Barrio Alcherri-Erreca. Se dió cuenta del resultado del deslinde y amojonamiento de la línea divisoria de este término Municipal con el de Aya llevada a efecto el día diez de febrero. Después de deliberar, por unanimidad se acordó aprobar el acto de deslinde, autorizada únicamente por la Comisión de Oriu por incomparecencia de la de Aya, y felicitar al Alcalde y a la Comisión por la defensa de los intereses jurisdiccionales del Municipio y las gestiones realizadas encaminadas a este fin.

1951ko uztailaren 14ko udalbatzarraren akta

Comisión deslinde Oriu-Aya. Según escrito del Instituto Geográfico y Catastral, debe efectuarse sobre el terreno estudio



“1948ko apirilaren 16an Altxerrierreka inguruko biztanleen gehiengoak eskatu zion Aia ko Udalari inguru hori Aiako udalerritik atera eta Oriokoan sartzea”

“Aiako Udalak 1948ko maiatzaren 20an adostu zuen eskaera horren kontra egitea... Orioko Udalak 1949ko uztailaren 10ean egindako Udalbatzan aho batez erabaki zuen eremu horretako biztanleek egindako eskaera gauzatzeko bidean abiatzea”

para fijar la línea límite definitiva sobre los términos municipales de Aya y de Orio, el día 27 de julio deberá personarse en el Barrio de Alcherri Erreca una Comisión de ese Ayuntamiento debidamente autorizada. El ayuntamiento acordó, por unanimidad, formar así la Comisión:

Alcalde-Presidente: D. Ramon Uranga Irigoyen; Concejal 2º alcalde: D. Jose Juan Lerchundi Huegun; Concejales: D. Jose Antonio Esnal Esnal y D. Julian Idiaquez Egaña; Perito práctico: D. Alejandro Gárate Aldaz; Secretario: D. Daniel Vargas Blanco.

1952ko apirilaren 26ko udalbatzarraen akta

Deslinde Aya-Orio. Se dio cuenta del escrito del Ingeniero Jefe de la Brigada de la Brigada de Deslindes del Instituto Geográfico y Catastral, Baldomero de Blas: El día 3 de mayo se realizará el deslinde definitivo entre los términos municipales de Aya-Orio (Guipuzcoa), en el punto kilométrico nº 23 de la carretera del crucero. Se personará en dicho lugar una comisión de este Ayuntamiento debidamente autorizada. El ayuntamiento conformó así la comisión: Sr. Alcalde, Sr. Secretario, Concejales: D. Antonio Iturain Arocena, D. Jose Maria Salsamendi Zubeldía y D. Jose Juan Lerchundi Huegun; perito práctico conecedor del terreno: D. Alejandro Garate Aldaz.

Auziaren gurdari tiraka, inguru hartako hiru herritar ibili ziren buru: Jose Isasti Urbietta, Jose Lazkano Olaskoaga eta Gregorio Makazaga Illarramendi. Auzia defenditzeko, Angel Soraluze izan zuten abokatu. Gerora, beste bi ere bai: Jose Maria Muguruza eta Carlos Blasco Imaz.

Batzuen porrota, besteen arrakasta

Horraingo iristen da Orioko udalbatzarren aktekin gaiaz diotena. Herritar batzuk oraindik ere oroitzen dira ordukoak. Jose Ramon Salsamendi zenak honela gogoratzen zuen auzia: *1951 inguruan, Uranga alkate sartu zenean, Daniel Vargas sekretarioarekin batera, Orioko Udala lanean ari zen Arratola aldeko baserriarekin, inguru horren desanexioa lortzeko Aiatik, Oriora ekartzeko. Orioren oso gutxi ziren baserriak eta horregatik parte bat Orio alderapasatu nahizuten. Bilerak Altxerrin egiten zituzten. Ordurako lortua zuten ia denen aldekotasuna. Tramite guztiak abiatuta zeuden.*


Auzi hartan pauso sendoak eman ziren; baina, azkenean, zerbaitengatik, herritar haien egitasmoak porrot egin zuen. Lur eremuak Aian segitzearen alde Aiako Udalak egin zuen, eta Jose Anjel Ertzilla Aiako albaitari zenak. Anjeli komeni zitzaion inguru horretako jendea Aian gelditzea, bere bezero izaten segitzeko. Badirudi bitan iritsi zirela botoa ematera. Lehenengoan, Aiatik Oriora pasatzearen alde agertu ziren, eta bigarrenetan, berriz, Aian segitzekoan. Eta inguru horretako baserri eta lurrek Aiako udalerrienak izaten segitu zuten. Gaur arte.

Desanexio prozesuaren xehetasunak

Ondoko informazioa Orioko udal artxiboan dagoen dokumentu batetik hartua da: *Expediente de segregación, fusión e incorporación de municipios, fusión de los terrenos Alcherri-Erreca. 1948-1962 (C.23.5).*

ERREPORTAJEA

Arratolaldea, Santiyorreka, Motondo: Aia-Orio.



Trenbideko zubia Altxerrierrekan, Aia-Oriotik Zarautz aldera.

Orduko gertakarien kronologia:

· 1948ko apirilaren 16an Altxerrierreka inguruko biztanleen gehiengoak eskatu zion Aiako Udalarari inguru hori Aiako udalerritik atera eta Oriokoan sartzea.

· Inguru horretako biztanleen %23k ez zuen sinatu eskaera.
 · Lur eremua itsasertzeko Nola-Puntan abiatzen da eta Zarautz eta Aia mugatzen dituen murrarekin batera segitzen du Perratuko Zuloraino; eta handik Larraspuruerrekara, leku hauetatik pasatuz: Gastañaga gaina, Endaien zuloa, Pagomutegi gaina, Amasko Etxeberria gaina eta Arratola gaina; eta handik San Pedroko bidera, Motako Aitzan amaituz, non mugarri bat dagoen.

· Aiako Udalak 1948ko maiatzaren 20an adostu zuen eskaerari aurre egitea. Hiru agiri azaldu zituen: Lehenengoan adierazten zuen Altxerrierreka izeneko auzorik ez zela existitzen Aian; bigarrenean, Aiako Udalaren aurrekontua 128.930,84 pezetakoa zela; hirugarrenean, segregazioak Aiako ekonomia hondatu egingo zuela. Hiru agiriak Gipuzkoako Gobernu Zibilararen eskaerari erantzuteko egin ziren.

· Orioko Udalak 1949ko uztailaren 10eko Udalbatzan aho batez erabaki zuen eremu horretako biztanleen eskaera gauzatzeko bidean abiatzea, alkateari gaia kudeatzeko erantzukizuna eta eskumena emanaz.

· Orioko parrokiako bikarioak adierazi zuen Apezpikuen Kuriaren dekretuz, lur eremuko baserriak 1942tik Aiako parrokiatik segregatuta zeudela eta Oriokoan sartuta.

· Gipuzkoako Ogasun Ordezkaritzako buruak 1950eko martxoaren lehen adierazi zuen ekonomiaren ikuspegitik ez zegoela eragozpenik gaiak inplikatzeko zituen administrazioetan lur eremua Aiatik segregatu eta Orion txertatzeko.

· Espainiako Gobernuak Gobernazio Ministroak, 1951ko

ZENBAKIA**24****Segregatzekotan ziren lur eremuko baserriak.**

Ondoko baserri hauetan bizi ziren herritarrek sinatua zen segregazio eskaera:

Amesti, Torretxo, Oribar-Zoko, Txintxurrieta, Oinezkoen Etxetxea, Beobate Behekoa, Beobate Goikoa, ERota Etxe, Altxerri, Oribar, Subai, Errota, Amas Portu, Errota Zahar, Ubegun, Makatxa Txiki, Amasko Etxeberri, Gaztañaga, Amats, Aldatz, Arratola gain, Arratola, Sarasua Enea, Inguru Eder. Tren-geltokia ere agertzen zen zerrandan.

Herritar gehienek kasuan sinadura agertzen da, bosten kasuan hatz-markak besterik ez. Denetara, 129 pertsona nagusi ziren. Beste dokumentu batean honako hauek ere agertzen dira: Federico Riojaren etxea, Arrutiren zerrategia, zine parrokiaren etxea eta Amasko Errota.



Aia-Orioko Oribarzarreko auzoa eta hondartza, autopista egin zuteneko garaian, 1970 inguruan.

urtarrilaren 12ko idatzian, adierazten du Ministroen Kontseiluak erabaki zuela aintzat hartzea Altzerrierrekako 24 baserrien eskaera Aiatik segregatzeko, eta horren aldeko erabakia hartu zuela 1950eko azaroaren 10ean.

· Epaitegi Goreneko Presidenteak segregazio-espeditentea eskatu zuen, Aiako Udalak jarria baitzuen Espainiako Gobernuaren erabakiaren kontrako helegitea.

· 1955eko urtarrilaren 5ean Gipuzkoako Gobernadore Zibilak Epaitegi Gorenaren erabakiaren berri eman zion Orioko Udalarari: *Indarrean dagoen 1935-10-31ko Legearen arabera eta 1924-7-2ko biztanleriari eta udalerriei buruzko Araudiaren arabera, Gobernuko Presidentearen 1950-11-10eko dekretua indarririk gabe utzi zuen 1954ko apirilaren 13an.*

Orioko Udalaren arrazoiak

Bi udalerrien arteko auzi historikoan Orioko Udalak argudio hauek eman zituen lur eremua Aiatik Oriora eramateko:

- Arrazoi ekonomiko hutsak dira.
- Aiako udaletxera 10 kilometro daude lur eremuko leku gertuenetik, eta Orioko udaletxera, berriz, 2 kilometro besterik ez, gune urrunenetik. Eginkizun ofizialak egitera Aiakora joateko, lan egun oso bat behar da.
- Egoera geografiko horregatik, Aiako Udalak ezin dizkie behar bezala eman legez derrigorrezko diren gutxieneko zerbitzuak esparru horretako biztanleei: medikuaren zaintza, botikako sendagaiak, dendetako horniketa (jateko gaiak, lanabesak...), eskola... Hori dena derrigor Orioren egitera behar-tuta daude herritarrek, Aia urruti dutelako eta hara joateko oso bide txarrak daudelako; aldiz, Oriora joateko baserri horietatik gertu daukate Orioren Zarautzekin lotzen duen errepi-dea eta Ubeguneko bidea, eta bide laburra dute.

· Segregazioak ez lioke kalte nabarmenik sortuko Aiako Udalarari, baserri horiek Aiako ekonomiari egiten dioten ekarpena txikia delako.

Aiako Udalaren arrazoiak

Aiakoak, berriz, honako arrazoiak argudiatu zituen lur eremuak Aian segitu zezan:

- Altzerrierreka izeneko auzorik ez dago Aian, ez da existitzen, ez da inoiz egon. Hori orain asmatu dute gai honetan nahastuta dabiltzanek.
- Desanexioaren alde ez dira agertu lur eremuan bizi diren biztanle guztiak, batzuk kontra daude.
- Aiak ez dauka ordekan dagoen hori bezalako beste lur eremurik, egunen batean industria gune bat garatzeko.
- Aiako udalerrien ekonomiak kolpe latza jasoko luke desanexioarekin.

Orioko udal artxibategian topatutako agiriek ziotena osatzeko eta kontrastatzeko, Aiako udaletxean ere ibili ginen dokumentu bila, baina 1948ko abenduaren 12tik 1957ko martxoaren 16ra arteko aktarik ez da ageri Aiako udal artxiboan.

Jose Mari Lertxundi aiarrak gogoan du gaia. Elkarrizketa batean zioenez, Aiak liskarrak batez ere Oriorekin izan ditu, nahiz eta orain harreman onak izan. Kontatzen zuen nola Oriok beretzat hartu nahi izan zuen hogeita bostetik gora baserri hartzen zituen lur eremua, eta bi botazio izan zirela: lehenengoan, Oriora biltzearen aldekoek irabazi zutela; baina bigarrenean, Aiaren aldeko propaganda gehiago eginda, Aian segitzearen aldekoek irabazi zutela. Nolanahi ere, mugarri berriak jartzera ere iritsi ziren, hormigoiz eginak.



300 bala

ETAk hilabete asko daramatza pauso txikiak ematen, gizartearen gehiengoak pauso gutxi, baina handiak eskatzen dizkiola aintzat hartu gabe



Eli Huegun

Desengainua. Hori da adiskide askori irakurri diedan hitza Egiaztatze Batzordeak Bilboko Carlton Hotelean egindako agerrialdiaren ondoren.

ETAk desarme prozesua hasi duela eta hainbat arma *berriz ez erabiltzeko moduan* jarri dituela iragarri zuen, pasa den ostiralean, Ram Manikkalingam Egiaztatze Batzordeko buruak. Horrela, 16,5 kilo lehergai, 4 su-arma, 2 granada, 300 bala, 9 gailu eta 200 metro lokarri-detonatzaile zigilatu ditu ETAk Egiaztatze Batzordearen aurrean, BBC kate publiko britainiarrak ezagutzera emandako irudietan ikus dezakegun bezala.

Hori da egunotan hainbeste aipatu den inbentarioaren edukia. Dena dela, -hitzok idatzi ditudan unean- inbentario osoa zein den ezagutu gabe jarraitzen dugu, eta zenbateko hori ezagutzea oso garrantzitsua deritzot pausuaren norainokoa ulertu ahal izateko.

Otsailaren 21eko prentsaurrekoaren inguruan sortutako espektatibak izugarriak izan ziren, eta asko desengainatuta sentitu gara. Baliteke errua gurea izatea, analisisa egiterakotan Madrilen immobilismo interesatuari behar zuen garran-

tzia eman ez eta komunikabideek emandako esperantza iturri horri indartsu heldu geniolako.

ETAk hilabete asko daramatza pauso txikiak ematen, gizartearen gehiengoak pauso gutxi, baina handiak eskatzen dizkiola aintzat hartu gabe. Madrilen jarrera ere erabat ulertezina egiten zait. Beharko lukeenaz oso bestelako papera hartu du, eta ezer ez egitean tematuta dabil, prozesuari ekar diezaiokeen kalteaz erabat axolagabeketa. Nazioartean sona handi goa izan du espainiar estatuan baino Bill Clintonentzat albiste ona denak Rajoyrentzat ez du balio.

Aski da! Euskaldunok ez dugu horrelakorik merezi, urte gehiegiz eraman dugu ETAREN harria bizkar-gainean, aldapan gora, burumakur. Badirudi burua altxatzen hasi garela, baina harriak eta aldapak hor diraute.

ETAk armak utzi eta bere disoluzioa iragarri behar du, eta Madrilek, berriz, bere ardura onartu eta ekin. Ba al dago beste aukerarik?

Desengainua sentitu arren, 300 balak beste horrenbeste pertsona hil ditzaketela konturatzean, aurrera goazela konturatzen naiz. Oso motel-motelegi aukeran-, baina aurrera. Eta hori beti da positiboa.

libe
dietetika
elikadura aholkularitza

eusko gudariak 35 :: ORIO
[santia Anartzale kaleak]

943 53 64 94 :: 697 23 86 56
libegarmenda@gmail.com

Lizaso
dekorazioa

Tf:
943 83 07 84

Faxa:
943 24 87 15

Eusko Gudari, 48



Nikolas Zendoia

Zer falta zaigu?

Gure Aia goiari ez ote zaio piztuko faltan botatzen diogun txispa hori? Eskolako gaztetxoak, zuek hasi beharko duzue eskolarteko bertsopaper kontu horrekin. Beste inork ez baitu egingo!

er baiten falta edo zenbait hutsune aurkitzen dizkiot ba, gure Aiari. Batez ere, Aia goiari. Jokoz-kanpo dagoenak ikusten baititu gauzak azkarren. Eta gu jubilatuoak, beti nola gauden jokoz-kanpo, hutsuneak aurkitzeko paregabeako arkitektoak gara.

Orain bete-betean sagardotegi garaian gaudenez, aipamen hau egiteko garai egokia dela derizkiot. Gure Aia kasko zahar berritu horri, sagardotegi koskor bat bat falta zaiola alegia!

Hor goian ez al zaudete inor dirudunik edo?

Ez da beharrezkoa egundoko upeltegia jartzea. Ez, ez. Txoko goxo bat, hiru-lau upeltxorekin. Eta sukalde egoki bat, pare bat neska katxarrokekin.

Zenbaitek esango du:

- Eta sagastiak non dituk?

- Lasai, gizona, sagastiak mundu guztian daude. Eta tolareak ere bai!

Bakarrik, esku egokia izan eta burua landu. Eta horrek bere abantaila han du.

Badakit bai, gauzak albotik esatea dela errazena. Baina aspalditik ohartuta nago gure Aia goiak horrelako biltoki bat behar duela. Gaur egun, jende mordoa bizi baita Aia goian.

Sarritan esan izan dugu, eta entzun ere bai! Aia, unibertsitatea dek gero... Broma gutxi! Zakurraren kitarra.

Sagardotegi bat ez duen herri goia ezin da izan unibertsitatea.

Ze? Idi-proba lekua duela eta? Ez da nahikoa. Sagardotegia da egitazko auzo euskal unibertsitatea. Eta horrela, bertsolari gaztetxoren batzuk ere, ez ote lirateke azalduko? Aukera bat izan daiteke.

Lehen izan ginenak hainbestekoak azaltzea, ez litzateke harriztekoa izango.

Eta gainera, bertsopaper lehiaketa sagardotegian bertan. Pastor Izuela izenburuarekin.

Gure Aia goari ez ote zaio piztuko faltan botatzen diogun txispa hori? Eskolako gaztetxoak, zuek hasi beharko duzue eskolarteko bertsopaper kontu horrekin. Beste inork ez baitu egingo, horrenbeste fundamentu!

Gure herri zahar-berritu hau, ea ba jartzen dugun merezi duen aipamenetan, sagardotegi eta guzti.

Animatu, zahar eta gazteak. Eutsi daiogun goiari.



KRITIKA

azkue

karrozeria



Ubegun industrialdea, 7
Tf/fax: 943 83 51 86

20800 Aia-Orio
Carroceriasazkue@hotmail.com



Orioko
Herri
Ikastola

Guraso Kooperatiba

ABESLARI KALEA, 8

TEL: 943 83 47 04

FAX: 943 13 09 38

orio@ikastola.net

www.oriokoikastola.net



Zaragueta
Eskola Orio

telefonoa: 943 89 40 52
e-mail: 012137aa@hezkuntza.net



tarima, ata, leiho, eskalera...
behar diren aotz lanak
ojingo dizkizugu

Urdazeta bidea, 1 - 669 42 32 70 - ZARAUZE



Eusko Gudari, 18 Telf: 943 83 00 07

LUXARBE

igeltseritza

Igeltseritza orokorra,
denetarik egiten dugu.

Presupuestoak eskatu
konpromisorik gabe

Lan txukuna
eta merkea

Tfnoa: 943 83 59 00



Eusko Gudari, 4 - Tel. 943 83 00 24



PAPERDENDA LIBURUAK ETA OPARIAK

TELF - 943. 572083
FAX - 943. 571190
i.asenjo@hotmail.es

INES ASENJO
IBAI ONDO 13
20810 ORIO



tel. 943 83 00 89



PATXI OLIDEN

Hemengo haragia.
Etxeko produktuak: tripaki, odolki,
txakorra, txarizo, kroketak...

Eusko Gudari, 25 Tel. 943 83 00 10

XABIER URRETABIZKALIA

- Instalazio elektrikoak
- TDT antenak
- Atezin automatikoak

60 urte zerbitzua ematen

☎ 943 83 17 74

Arrantzale, 31 20810 ORIO

ITSASADARRA, S. L.

Jose Angel Iradi Udabe



aseguru artekaria
finika administratzailea
gestoria
enpresa berriak sortzeko diru laguntzen kudeaketa

Tel 943 89 40 29 Fax 943 83 54 98 itsasadarra@itsasadarra.com
Ibai Ondo 4, behea. 20810 Orio

Maider Arrillaga Sarasola - 138. Kol. zenb.
Arrantzale 63 - 20810 - Orio - Gipuzkoa
Tel. 943 575 361

oinarri
PODLOGIA ZENTROA



Gregori Akaña, familiarekin, alaba Esther eta seme Remigioren ezkontzan, 1960an. E. LERTXUNDI

OROIMENAREN KUTXA

Gregori Akaña, hura zen emakumea hura!

Oroimenaren kutxa

Zarauzko kale-izenen errebaso mental azkar bat egin ten hasi, eta emakume bakar baten izena datorkit gogora: Maria Etxetxiki. Emagin boluntarioa zen Maria, emakume haurduna non haraxe joaten zen umea munduratzeko laguntzera. Orion, ni jaio nintzen herrian, ez dut gogoratzen emakume-izena daraman kalerik, baina bai haur-eskola bat Maria Maestra izenekoa. Oriotar asko harekin ikasiak gara dotrina eta lehen letrak. Horra mundualdia hots handirik gabe egindako bi emakume, lan isila dutenak merezimendu. Anjel Lertxundiren hitzak dira horiek.

Orioko arraunaren historia idatzian ere ez dira emakume asko agertzen, baina oraindik bizirik den traineru batek andre-izena du, 1990eko hamarraldian Martin Peronak egindako txalopak: *Gregori Akaña*. Eta zein zen, ba, emakume hura?

Gregoria Ibargoinen, Gregori Akaña, azkenajaio zen 11 senideko familia batean, 1902an. Otsailaren 13an 112 urte beteko zituen, bizi bazen. Bederatzi neska eta bi mutil ziren etxe hartan, akañatarrenean. Kemen handiko neska bizia izan omen zen Gregori bizitza osoan. Bederatzi seme-alaba izan zituen, Inazio Lertxundirekin ezkontuta; haietako seik bakarrik egin zuten baina aurrera, hiru txikitan galduta. Etxekoandre eta familia ugariko ama izateak eta, haiek aurrera ateratzeko, soroan eta eskabetxerian lan asko egin beharrez zuten, hala ere, atzendu kale-bizitza handia izatetik. Lan eta ardua horiek denek ez zioten kendu kanturako eta bertsoarako zaleztasuna, ez zioten itzali berezko zuen poza eta kemena, bizigogoa.

Ez zuten ikasketa handirik, apenas ibiliko zen eskolan, baina nahikoa jakinduria eta gaitasun bai. Emagin lanak egin zituen. Gaur egun bizirik dagoen oriotar asko Gregoriren laguntzaz jaioa da mundura. Praktikante ere ibili zen, herritarrei indizioak jartzen, etxez etxe, jendea txertatzen. Eta

norbait hil eta, lurperatu aurretik autopsia egin behar bazitzaion, kanposantuan herriko medikuak bere lanak egin ondoren, Akañak josten zuen gorpua. Jendeari laguntzen, jaiotzan, bizitzan eta heriotzan.

1936an gerra etorri zenean, falangistek zigor krudela jarri zieten herriko hiru emakumeri: ilea dena moztuta, kalean gora eta behera ibili zituzten, herritarren aurrean, familia abertzalekoak izateagatik. Gregori ere deitu zuten udaletxera, haiekin batera. Han, karabineroen buru egiten zuenak etxera bidali zuen, aurrerantzean ezertan ez sartzeko aginduta. Akaña ezaguna zuten, kuartelera ere iristen baitzen indizioak jartzera, hango norbaitek behar zuenean.

Estropalariei ongi-etorri festa prestatu behar zitzaizenean, aurrena zen kalean kolore horiko girlandak eta apaingarriak jartzen. Gregori izan zen 1946an, Oriok Domingo Mitxelena-rekin Santanderren Espainiako txapelketa irabazita, herriak arraunlariei egin zien harrera izugarriaren antolatzaile nagusia, Esteban Elizondorekin batera. Herriko zaharrek diotenez, huraxe izan zen Orioko arraunaren historiako alironik handiena: estropalariek txalupa zahar batean sartuta igaro zuten zubia, trenaren estaziotik herrira, aurretik musika-banda eta herritarrak kantari zituztela: *aurrena Oriota bigarren Pedreña, hirugarren Sestao, laugarren Coruña...*

Bertsozale eta kantuzale handia izan zen Gregori. Antonio Zabala euskaltzain bertsozaleak kantu eta bertso bila Euskal Herri osoa korritu eta Oriotik pasatu zenean, Gregori eta haren seme Remigioren ahotik jaso zituen bertso eta kantu asko.

Orain badakigu zergatik jarri zion Martin Peronak *Gregori Akaña* izena berak egindako traineruari, emagin, praktikan-te, abertzale, arraunzale, bertsozale eta festazalea zen bere amonaren izena.

IÑAKI ITURAIN

Herritarren erosotasuna bermatzeko lanak abian dira



Otsailaren 24an hasi ziren Ibaiondo kalean bidegorria jartzeko lanak. KARKARA

2013. urtean Euskal Finantzen Kontseiluak 18 milioi itzuli zizkion Gipuzkoako Foru Aldundiari eta honek Gipuzkoako Udalen artean banatu zuen jasotakoa. Orioko Udalak, Topagune berdeak 2012an egindako txosten batean proposatutako hainbat egitasmo laguntzera bideratu du diru kopuru

hori: kultur etxeko irisgarritasuna bertetzeko eta Dikeko bide gorria egiteko.

Kultur etxeko sarrera/irteera

Gobernu batzarrak 2013ko abenduaren 10an onartu ondoren, kultur etxeko sarrera-irteera irisgarri egiteko lanetan ari da Aizperro enpresa duela bi aste

hasita –otsailaren 10ean hasi ziren lanekin–. Behin lanak bukatuta, edonork erabili ahal izango du Eusko Gudari aldeko sarrera. Izan ere, eskailerak zeuden lekuan aldapa bat ari dira egiten hondartza aldera begira, eta plaza aldera, aldiz, eskailerak.

27.002,21 euro gastatuko ditu Udalak lan honetan.

Dikeko bidegorria

Behin Itsasertzeko Zuzendaritzaren baimena lortuta, Orioko bidegorri sarea osatzeko bidean, bizikletarekin ibiltzeko egokituko du Orioko Udalak Ibaiondo aurreko zatia. Bizikletak kontrako norabidean, plazara bidean, ibiltzen dira eremu horretan.

2013ko Gobernu batzarrean onartu eta esleitu zitzaizkion lanak Murgil enpresari. Eta otsailaren azken astelehenetan, 24an, hasi ziren lanean.

35.676,37 euro kostako zaio Udalari bidegorri zati hau egitea.

Horrez gain, ibilgailuentzako bidea asko estutuko denez, bigarren lerroan aparkatzea eragotziz, Eusko Gudari kaleko TAO sistema bera jarriko dute Ibai Ondo aurrean, gune horretako merkatariek hala eskatuta. Karga-deskarga erraztea eskatu zuten merkatariek.

EAJ: ze gardentasun?

Badirudi, Udaleko Gobernu batzarrean, 3 gai landu zirela; landu, diktaminatu eta adjudikatu: kultur etxeko aldapa, bidegorria Diken eta espaloia zabaltzea Arantzazuko Andra Marin. Deigarriena gai honetan non landu diren da guretzat. Izan ere, Udalean batzorde honen aktibitateaz galdetuta –barne araudiaren arabera, parte hartzeraz gonbidatu behar gaituzte– ez duela inongo bilerarik egin eta egiten izan zen erantzuna. Hauek dira formak aldatzera zetozen haien funtzionatzeko modua? Hau ere gardentasuna da?

Bildu: irisgarritasuna helburu

Garrantzitsua da bizikletan ibiltzeko ohi-tura zabaltzea, eta horretarako, beharrezko diren baliabideak eman egin behar dira. Finantzazioa lortzea, ordea, zaila da, eta hortaz, behar gehien dagoen lekutik hasia erabaki dugu. Ibaiondon bizikletazale asko ibiltzen da kontrako norabidean eta hori lehenetsi dugu. Kultur etxean, berriz, agerikoa zen arazoak: irisgarritasun falta, atzeko atletik sartzeko desegokitasuna, tartean, areto nagusitik pasa behar zelako, jende pilaketak Eusko Gudariko espaloia txikian...

Orain: bizi-kalitatea hobetuz

Iaz Topagune Berdean adostutakoaren harira eta herriko irisgarritasuna hobetu beharra asetzeko bide luzean jarraituz biltzen diren hauek garbi azaltzen dute gure kaleak oinezkoen eta bizikleta darabilten neurria moldatuz denok irabazten dugula. Kultur Etxeko lanean gurgildun aulkiak eta ume kotxeak iritsiko dira gune publiko batera eta Ibaiondon bizikletak dira garaile. Bide-gorri-berde-txuri-horri jarraitzeko asmoa dago, bizimodua gureganatuz eta bizi-kalitatea etengabe gehituz.

LARDIZABAL HERRI ESKOLA

137 ikasle daude haur eta lehen hezkuntzako bi eraikinetan



Azken zortzi urtetan Aiako eskolan da goen ikasle kopurua nabarmen handitu da. Duela zortzi urte 80 ikasle inguru ginen; ikasturte honetan berriz, 137 ikasle gaude. Hala ere, eskolak lehen zuen taina berbera du eta ez gara behar bezala kabitzen. Horregatik, aurtengo udan, Udaletxeak obrak egin behar izan zituen eskola egokitzeko eta ikasle-taldeak behar bezala antolatzeko. Liburutegia tokiz aldatu genuen eta ingeleseko gela egokitu eta gela arrunta bihurtu genuen.

ZARAGUETA HERRI ESKOLA

Valdezcarayra eskiatzera joango gara martxoan



Aurreko ikasturtean hasi ginen dirua jartzten; astero euro bat... eta azkenean lortu dugu! LH 5-6 eta DBHkoak elkarrekin joango gara Valdezcarayra. Autobusa betetzeko 15 eserleku libre zeudenez, guraso talde bat ere animatu zaigu. Batzuk eskiatzera; besteak eguzkia hartzera. Eskiatzen ikasteko ikastarotxo bat egingo dugu aurrena, askorentzako lehenengo aldia baita. *Kuñ*a egiten ikasita gure kabuz ibiliko gara ondoren. Ea ondo pasa eta ez dugun minik hartzen.

ORIOKO HERRI IKASTOLA

Oriotarren elkartasuna Ruandako "Ikastolari"



Urteak daramazkigu Ruandako "Ikastolari" laguntzeko, Gabonetan tonbola antolatzen DBHko ikasleok. Herriko dendarri, ikastolako guraso eta irakasleei esker, hamaika produktu lortu ditugu sari "sinboliko" gisa emateko, finean ekimenaren helburua Ruandako gure "ikaskideei" laguntzea baita. Urtero tonbolan ateratzen den diruari, Gabonetan eta santa eskean ateratakoa gehitzen diogu. Aurten 1.928 euro bidali ditugu eta Leonardo Esnaolak bihotzez eskertu digu elkartasuna.



Leire Izagirre

Gazteen lokalak

Edadetuek Zaharren babeslekua, gazteek Gazte-txea eta 16 urtera arteko gaztetxoek Ametsa gaztelekua dute euren txokotzat, baina 16 urte inguruko gazteentzat ez dago txokorik Orion. Gaztetxean sartzeko oraindik gaztegiak, gaztelekuan egoteko zaharregi, eta herrian ez da ekintzarik antolatzen gazte hauen aisialdirako, hortaz, gazte hauek herriko lokalak hartzeko joera dute sarritan, hau, ikasgai izan daitekeelarik; alokairuaren ordainketan, garbiketean, bizikidetasunean... eta ez da baliabide txarra neguan, zein eguraldi txarreko egunetan, bertan arratsalderen bat lagunekin igarotzeko.

Baina bizilagunak ez dira sarritan pozik egoten lokal hauekin; musika altuegia, jende ugari... eta honi konponbidea emateko, batek baino gehiagok deitu ohi izan die ertzainei.

Egia da lokal hauek ez daudela jende asko sartzeko edota soinua isolatzeko egokituta. Gainera, gazteak behin lokalean sartuta, ez dira hain erraz bertatik irteten, horregatik, gazte naizen aldetik, 16 urte inguruko gazteontzako ekintzak antolatzea nahiko nuke.

Ez da baliabide txarra neguan, zein eguraldi txarreko egunetan, bertan arratsalderen bat lagunekin igarotzeko

PUBLIZITATEA



kutixi
kafetegia
GOSARI GORDAK
Añitza 3, 20810 Orio
Tf. 943 13 55 17

SARASUA ERRETEGIA

Plater bereziak: -Arrain zopa
-Arrain eta haragi erreak

Eusko Gudari, 29 **ORIO** Tel: 943 83 00 05/
943 13 25 32

SU KIA
TABERNA - JATETXEA

On egin eta gero... harte KOPA eta TOPA!!

- OILASKO ERREAK ERAMATEKO
- EGLINEKO MENJA
- EGLINKATIAK
- OGIA

Tf. 943 832 120
ARRAONDEKO, 1. BAZOIA

INSTALACION DE VENTANAS



Sagasti
LEIHOAK

ROBERTO SAGASTI

Tel: 943 13 00 77
Fax: 943 53 71 50
sagasti@sagastileihoak.com
Amaritzale Kalea, 95
20810 ORIO (Gipuzkoa)



ASADOR
XIXARIO

Parko Gabriel Kalea, 2
Tel. 943 830 019 - ORIO

tel/fax: 943 89 00 69
Bilakaia kalea, 4. 20.810 ZARAUTZ



ITURGINTZA_BEROGINTZA
GASA_BAINU ERAKUSKETA

Prespektak konpromisoak jabe

URAITZ
kurintologia
jarritz-osagarriak

Endara, 3 Tfax: 943 83 18 97



gizarte
kutxa

ROSANA ARRUTI ARGAZKILARIA

2014ko
JAUNARTZEA

fotorosanaarruti@gmail.com
Aita Lertxundi, 26-Orio-Telf.: 943 835845



URANGA
burdindegia

Opari, menaje eta erremintak

fer.uranga@euskalnet.net
Telefax: 943 8312 36 Eusko Gudari, 5

 karkara Karkara aldizkariak	 Eta Arkupen elkarteak
 Karkarako laguntzailleentzat	 saria dute
 30 €	 Arkupen dendetan gastatzeko


Otsaileko sarituak:

Alberto Agirre Zubizarreta
(Ramiro argazki dendan)

Lurdes Arregi
(Maukan)



Jon Sarasua



Hiztunpolisa

Euskaltasunaren norabideaz apunteak

Zer pentsatu handia ematen ari da liburua. PAMELA

Zure euskaltasuna sendatzako pilulak

Badakit, badakit, zukez duzu zure *euskaltasuna* sa-soian jartzeko beharrik. Sinestuidazu, ordea, armairuek gauzak ordenatzeko balio duten bezala, buruan nahas-mahas ditugun uste eta intuizioak argiago ikusi eta antolatzeke balio izaten digute liburu batzuek, eta horietako bat da mesanotxerako gomendatu nahi dizudan hau.

Mardula eta serio samarra da, bai, baina pilula txikitan antolatuta dago, orrialde bateko edo gutxiagoko luzera duten pasartetan, eta hizkuntza ulerterrazean idatzia. Zer pentsatu ugari emango dizu garenaz, euskarari buruz eta *gure* kontu askotaz, tarteka mesanotxetik eskuratu eta hango pilula batzuk hartzen badizkiozu.

Nire aitaren etxea defendituko dut idatzi zigan Gabriel Arestik. Eta ematen du Jon Sarasuak erantzuten diola: *bai, baina zertarako nahi dugu aitaren etxea amaren sua itzaltzen baldin bazaigu? Amaren sua ez da bakarrik euskara, eta euskara -beste edozein hizkuntza bezala- ez da soilik hitz kode bat.*

Euskaltasunari buruzkoa da liburua. Zer da *euskaltasuna*? Aspalditik euskararen bueltan datorren *kultur fluxu* bat. Gure ingurura begiratu besterikez dago haren eragina suma-

tzeko: *Ikastolena bezalako mugimendu bat, eta kooperatibetan munduan erreferente izatea, eta koadrilismo gregarioa, eta elkarte gastronomikoak eta euskalgintza gehiena gizarte zibiletik hauspotu izana... nondik datoz?.* Eta, batez ere, zer egin dezakegu *euskaltasun* hori biziberritzeko?

Hiztun komunitate moduan jarraidura bermatu edo ez bermatu, horixe da herri honetan jokoan dagoen arazo existentzial kolektibo muinekoa. Eta horretarako, hiztun komunitate honi, euskararen herriari, euskara jendeari, pentsamendu-zoru bat, etorkizun-ikuspegi bat eta estrategiak proposatzen dizkigu Sarasuak liburuan.

Lehendik bazenituen intuizio batzuk konfirmatuko dituzu tarteka, sekula horrela planteatu gabekoak ikusiko hantzen, bat etorriko zara batzuetan, ez guztiz beste batzuetan, baina argi ikusiko dituzu euskaldun gisa aurrez aurre ditugun eztabaida gaiak eta erronkak.

Horrez gainera, beharbada, liburuko pilulak irensten joan ahala, armairu txukun atondu bateko zerak baino antolatua go-jarriko dituzu zeure buruan euskarari eta euskaldunoi buruzkoak, eta argiago, sendoago sumatuko duzu zure *euskaltasuna*.

Kritika Hiztunpolisa

Liburua, Jon Sarasuaren azken idatzizko lana.

IÑIGO FERNANDEZ OSTOLAZA





Udaleko kontuak Azoka, tradizio bat arriskuan

Giro berezia sortzen da Orion ostegunetan, eta horrek, azoka tradizio bat baino gehiago bihurtu du. Urtez urte pixkanaka aldatuz joan da, baina bere izaera mantendu du. Udalak, Hainbat proposamen eta eztabaidaren ostean, azokako saltzaileen tasak bikoiztea erabaki zuen. Metro karratuko eta eguneko 1,51 eurotik 3,02 eurotara. Merkatuko saltzaileak ez daude ados neurri horrekin eta erabaki horren aurrean beren desadostasuna adierazi nahi diote udalari. Tasak hainbeste igoko balira, azoka desagertu egingo litzakeela diote.

@ karkara.com/albisteak/azoka-tradizio-bat-arriskuan/



HASI TXIOKA

QR kodeak baliagarririk egiten al zaizkizu?



Euskara

Abizenak euskalduntzeko kanpaina

Orioko Udalak, UEMArekin batera, abizenak euskalduntzeko kanpaina abiatu du Euskaraz naiz lelopean. Euskaldunei bere izanarekin koherente izatera eta abizenak euskalduntzera animatu nahi ditu horrela. Abizenaren grafia euskaraz jartzea erraz egin daiteke gaur egun: herrian bertan, Bake Epaitegira joanda. Hiru pausotan moldatu dezake abizena nahi duenak.

Kirola

Euskadiko Kintopekoa lehen aldiz Aian

Plazan sekula ibili ez diren Idientzat aukera aparta da Kintopekoa, idi berrien erakusleioa baita. Aurten, lehen aldiz, Aiako probalekua Euskadiko Kintopeko Idi proba txapelketaren lekuko izango da martxoaren 7tik 10era izango da. Ohiko harria 1500 kilokoa izaten da, eta burdin plaka bat izaten du. Berezitasunekin dator txapelketa, plakak ohi baina 90 kilo gehiago pisatuko baititu, 200 kilo hain zuzen ere.

Denboralea

Txikizioen konponketa erabakitze dago

Otsailaren 2ko itsasaldiak eragindako kalteak konpontzeko modua zehazten ari dira oraindik Eusko Jaurlaritzako, Gipuzkoako eta Bizkaiko Diputazioetako eta kalteak jasan dituzten herrietako Udaletako ordezkariak, Oriokoa barne. 50.000 euro inguruko gastuari egin beharko dio aurre Orioko Udalak denboraleak eragindakoak konpontzeko eta txukuntzeko. Gastu guzti horiei aurre egiteko partida bana eskatu die Orioko Udalak Eusko Jaurlaritzari eta Gipuzkoako Foru Aldundiari. Horrez gain, Antillan egiten den hondar-pilaketa Itsasertzetako eta Kostetako Zuzendaritzak bere gain hartzea adostu zuten.



jontorro @jontorro · ots. 2

Eguneko txikizio handiena kostaldeko euskal hiztunak ETB2n gaztelaniaz hizketan jartzea da. Hori ere #gureeskudago



Beria eztunak poza @IdoiaEtxeberria · ots. 16

75 plaza juxtukin earra proba #Kinki!!! Ona haiz!!!! #ispaster :D
pic.twitter.com/XD2QsvDBFN



Itzi Olasagasti @itzigasti · ots. 14

Ilunabar polita, itsasbazterren eta ilargia kikiuka. Haize gehitxo aukeran. Hamalauko konpañia ederra. #guazen



Beria eztunak poza @IdoiaEtxeberria · ots. 16

75 plaza juxtukin earra proba #Kinki!!! Ona haiz!!!! #ispaster :D
pic.twitter.com/XD2QsvDBFN



Nekazaritza Errenta aitorpena modularik gabe egin beharko dute

Aurtendik aurrera aplikatuko diren Jarduera Ekonomikoen Ete-kina kalkulatzeko aldaketak gai hartuta, hitzaldia eskaini zuten otsailaren 7an Euskal Herriko Nekazarien Elkartasuneko (EHNE) eta Euskal Nekazarien Batasuneko (ENBA) ordezkariak. Besteak beste, moduloak desagertu egingo direla eta baserritarrek dituzten alternatibak zein diren azaldu zituzten bertan Garikoitz Nasabal (ENBA) eta Xabier Iraolak (EHNE).

@ karkara.com/albisteak/karkara-hilabetekari-izango-da-urta-rriletik-aurrera/



Aurrekontuan 2014ko aurrekontua onartu du Orioko Udalak

Urte honetako aurrekontua onartu zuen astelehenean, otsailaren 17an, Orioko Udalak Bildu eta Orainen aldeko botoekin. EAJk kontrako botoa eman zuen berek nahi lituzketen aurrekontuak ez direlako. Ogasuna eta pertsonaleko batzorde informatzailean diktaminatua izan zen gaia otsailaren 11n eta udalbatzarrean onartuta, zehaztuta geratu dira 2014ko sarrera eta gastuen zenbatekoak: 6.521.227 euro -2013koa baino 1.453.623 euro gutxiago-. Behin behineko onarpenera emanda jendaurrean jarriko dira aurrekontuak.

@ karkara.com/albisteak/gai-guztiak-onartu-dira-plenoan/

Kiroldegia bete zuten Danbolin Musika Eskolakoek



@ karkara.com/albisteak/kiroldegia-bete-zuten-danbolin-musika-eskolakoek

KMKaraokeko emanaldien labur- pen bideoa



@ karkara.com/albisteak/sei-taldek-hartu-zuten-parte-kmkaraokean

Oriaren XX. Trai- neru Jaitsierako bi- deoa egin dugu



@ martxoan karkara.com-en

ZERBITZUAK**AZOKA**

Iragarkietarako txokoa. Iragarri nahi duzun hori telefonoz (943 83 15 27) zein e-postaz bidali dezakezu: karkara@karkara.com. Merke asko, gainera, doako zerbitzua baita gurea.

Opari

■ Txakurkume bat dut oparitzeko. Masting eta Border Collie arrazen arteko nahasketa ditu txakurtxoak dira. Tf.: 943 13 49 45.

Salgai

■ Etxebizitza ia berria salgai Aian altzariekin. Hiru logela, bi bainu, igo-gailua eta garajea ditu. Azken solairua. Tf.: 645484958.

■ Garaje itxia salgai Orion, Baxoalde kalean. 677 932428.

■ 16 metro² ko garaje itxia salgai Orion, Goiko Kalean. Tf.: 699 716 253 edo 669 254 741.

■ Garajea salgai Orioko Goiko Kalean -Almirante Oa-. Tf.: 645715841-645715840.

■ 3 logelako etxebizitza salgai Goiko Kalean. Sartzeko moduan. Prezioa: 210.000€. Kontakturako telefonoa: 630149 835.

■ Garaje itxia salgai Orioko Goiko Kalean. Tf.: 649 308 092.

■ Bugaboo Camaleon ume-kotxea eta *kukoa* salgai. Hiru funda eta zakuarekin. Kukoarentzako pikezko zaku zuria eta barruko funda zuria.

Dena 200 euro, xasis gabe. Oso egoera onean. Tf.: 606 952 320

■ Inglesina haur-kotxe urdin iluna salgai. Berriberria. 350 euro. Tf.: 606 952 320.

Auto-partekatzea

■ Orio-Miramón teknologia parkea joan-etorrirako autoa partekatzeko prest. 08:15ean Oriotik abiatu eta 13:30ean itzuli. Tf.: 655 702 613.

Alokatu

■ Otsaila-ekaina bitarteko 2-3 logelako alokairuko pisu bila nabil. Jon (675711348)

■ Etxebizitza alokagai Goiko Kalen. Hiru logela, sukaldea, egongela eta bainugela. 600 euro. Tf.: 656 708 603 (Amaia).

■ Etxebizitza alokagai Orion. Loft erakoa, baratzeta eta terrazarekin. 700 euro. Tf.: 600 301 350.

Galdutakoak

■ Brotxe obalatu beltza galdu dut Errege egunean. Zilarrezko brokala du inguruan eta estimu handia diot. Tf.: 606 751 603 / 619 765 083.

■ Bizikleta berri berria lapurtu ziguten Anibarko

Portuan urtarrilaren 5ean, 12:30ak aldera. B'Twin markako txirrinda da, Run Ride urdina. Pedalik ez du, haurren oreka lantzeko bizikleta baita, eta ez dauka frenorik. Bizikleta hartu edo ikusi baduzu, mesedez jar zaitetz gurekin harremantant (Stepan- 630246785-; Olga- 644225871).

Beste batzuk

■ Ingelesa praktikatzeko mintzapraktika jarri dugu martxan Orion. Ostegunero elkartzen gara Antilla tabernan, 17:00etatik 19:00etara. Interesatuak hara agertu besterik ez du egin behar.

Lan eskaera

■ Emakumea lanerako prest. Adineko pertsonen zaintzan esperientzia eta erreferentziak ditut. 630 850 167 -Maria Elena

■ Emakumea lanerako prest. Asteburuetan, orduka. Edadekoak zaintzen edo garbiketa lanean. 616 136 439.

■ Mutila lanerako prest. Adinekoak zaintzeko edo beste edozein lanerako. Arauzko dokumentazioa eguneratuta. TL:644 360 164.

ITSASOA

EGUNA	ITSASGORA	ITSASBEHERA	ILARGIA
01	04:13 eta 16:38	10:21 eta 22:37	
02	04:57 eta 17:20	11:04 eta 23:20	
03	05:39 eta 18:01	11:46 eta	
04	06:21 eta 18:42	00:03 eta 12:27	
05	07:03 eta 19:24	00:45 eta 13:09	
06	07:46 eta 20:07	01:28 eta 13:52	
07	08:32 eta 20:56	02:15 eta 14:38	
08	09:28 eta 21:58	03:08 eta 15:33	
09	10:42 eta 23:20	04:13 eta 16:43	
10	12:12 eta	05:34 eta 18:04	
11	00:45 eta 13:26	06:54 eta 19:16	
12	01:48 eta 14:19	07:54 eta 20:09	
13	02:34 eta 14:59	08:39 eta 20:51	
14	03:12 eta 15:33	09:15 eta 21:27	
15	03:46 eta 16:04	09:49 eta 22:00	
16	04:17 eta 16:35	10:21 eta 22:33	
17	04:48 eta 17:05	10:53 eta 23:05	
18	05:19 eta 17:36	11:25 eta 23:39	
19	05:51 eta 18:08	11:58 eta	
20	06:25 eta 18:43	00:14 eta 12:34	
21	07:03 eta 19:23	00:52 eta 13:13	
22	07:47 eta 20:10	01:36 eta 13:59	
23	08:42 eta 21:12	02:29 eta 14:55	
24	09:55 eta 22:32	03:35 eta 16:07	
25	11:25 eta	04:56 eta 17:30	
26	00:02 eta 12:49	06:20 eta 18:48	
27	01:18 eta 13:56	07:30 eta 19:53	
28	02:18 eta 14:49	08:28 eta 20:47	
29	03:09 eta 15:36	09:17 eta 21:34	
30	03:55 eta 17:15	11:01 eta 23:18	
31	05:38 eta 17:59	11:42 eta	

ZAINZAKO BOTIKAK**MARTXOXA**

- 1etik 7ra, Lasa.
- 8an eta 9an, Zulaika.
- 10ean, Gallo Artifiano.
- 11n, Azaldegi.
- 12an, Zulaika.
- 13an, Iriarte.
- 14an, Larrañaga.
- 15 eta 16an, Mutiozabal.
- 17an, Azaldegi.
- 18an, Zulaika.
- 19an, Gallo Artifiano.
- 20an, Larrañaga.
- 21ean, Mutiozabal.
- 22 eta 23an, Etxeberria.
- 24an, Zulaika.
- 25ean, Gallo Artifiano.
- 26an, Azaldegi.
- 27an, Larrañaga.
- 28an, Etxeberria.
- 29tik 31ra, Lasa.

Azaldegi: Urdaneta kalea, 8.

943 13 31 83 Zarautz

Etxeberria: Gipuzkoa kalea, 17. 943 83 23 98 Zarautz**Mutiozabal:** Kale Nagusia, 12. 943 83 29 70 Zarautz**Larrañaga:** S. Frantzisko, 16. 943 13 38 14 Zarautz**Lasa:** Herriko plaza. 943 83 09 36 Orio**G. Artifiano:** Zigordia kalea, 17. 943 13 40 19 Zarautz**Iriarte:** Zinkunegi, Pilartxo Enea. 943 13 29 83 Zarautz**Zulaika:** Bizkaia kalea, 41. 943 13 39 94 Zarautz

EGIN EZAZU ZURE PUBLIZITATEA

KARKARA

943 83 15 27

ALDIZKARIAN



Barrikotea izango da Andatza auzoan

Auzoko zenbait bizilagunek antolatuta, barrikotea egingo dute Andatzen martxoaren 15ean. 25 euroren truke sagardotegiko menuaz gozatuko dute bertan, trikitixa lagun dutela. Martxoaren 9rako eman behar dute izena interesatuek 666 672 191 -Andoni- edo 686 824 304 -Iñigo- telefono zenbakietara deituta.

Orio

Irteerak

- Martxoaren 1ean, Inauteriak, Desfilea Bikamiotan hasita, 17:00etan. Txokolate jana eta erromeria, 18:00etan, Karela kiroldegian.
- Martxoaren 1ean, Inauteri elektronikoa, 00:30ean, Etxeluze Gaztetxean.
- Martxoaren 5ean, Biodantza Ikastaroa, 18:30ean, Kultur Etxean.
- Martxoaren 8an, Kilometroak-ek antolatuta, Erronka eguna goizean.
- Martxoaren 9an, Talai Mendik antolatuta, Egileor-Salinas de Orio irteera.
- Martxoaren 13an, Etxeluze Gaztetxeak antolatuta, Nasi Goreng Adiktion proiektatuko da, 10:00etan, Gaztetxean.
- Martxoaren 14an, Ta orain zer? antzez-lana, 22:30ean, Kultur Etxean.
- Martxoaren 21ean, Niko Etxarten kontzertua, 22:30ean, Kultur Etxean.
- Martxoaren 22an, Surf taldeak antolatuta, Hondartza garbiketa, 10:00etan.
- Martxoaren 25ean, Zaharren Babeslekuak antolatuta, jubilatuen eguna. Meza nagusia 12:00etan; Agiñako Errasti sagardotegira autobusa, 13:00etan eta 13:30ean. Txartelak hartzeko eguna: irtarilaren 17an eta 18an.

- Martxoaren 28an, Gabrielen lekua antzerkia, 22:30ean, Ikastolako aretoan.
- Martxoaren 29an, Orioko Curriculum Sortzen taldeak antolatuta, parekidetasunari buruzko mahai-inguru gosaria, 11:00etan, Kultur Etxean.
- Martxoaren 30ean, Kilometroakek antolatuta, Mendi Lasterketa, goizean.
- Martxoaren 22an, Surf taldeak antolatuta, Hondartza garbiketa, 10:00etan.

Traste zaharrak

- Martxoaren 12an eta martxoaren 26an, traste zaharren bilketa, ohiko zabor ontzien ondoan. Atera aurretik udaltxera deitu behar da zer bota behar den jakinarazteko. Tf: 943 830 346.

Musika astea

- Martxoaren 24an, 17:30ean, Kultur Etxean.
- Martxoaren 24an, 19:00etan.
- Martxoaren 25ean, 18:30ean.
- Martxoaren 26an, 17:30ean.
- Martxoaren 26an, 19:00etan.
- Martxoaren 26an, 17:30ean.

Hitzaldia

- Martxoaren 11n, Esperientzia Eskolak antolatuta, Gipuzkoako adinekoen aldeko manifestua, 17:00etan, Kultur etxean.

Bilerak

- Martxoaren 19an, Aldundiak antolatuta, Autobus zerbitzuaren hobekuntzen bilera, 19:00etan, Kultur Etxean.

Aia

Euskadiko Kintopeko idi-probak

- Martxoaren 7an, 22:00etan.
 - Martxoaren 8an, 22:00etan.
 - Martxoaren 9an, 18:00etan.
 - Martxoaren 10ean, 22:00etan.
- Aiako probalekuan izango dira idi-proba guztiak.

Mendi Lasterketa

- Martxoaren 2an, Aiako Kirol Elkar-teak antolatuta, mendi lasterketa, 11:30ean hasita.

Podologoa

- Martxoaren 29an, podologoaren kontsulta, sendagilearen etxean. Aurrez ordua hartzeko 943 131 144 telefono zenbakira deitu behar da.

Erakusketak

- Aste santuak bitarte, Patricia Schaa-nen erakusketa, akuarela teknikaren pinturak Jauregi tabernan.



Kontxako estropada irabazita oriotarrak kalera atera ziren 1992an. Orduan, txarangaren ordezt, trikiti doinuek lagundu zuten festa girotzen . KARKARA